**EZTABAIDA: ZER IRIZTEN DIOZU ERRETIRATZEKO ADIN MUGARIK EZ JARTZEARI?/7**



# Goienkaria

EGUENA • 2001eko urriaren 11 • II. urtea • 37. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**JAVIER ELZO**
*"Gazte eta adinekoen portaerak oso antzekoak dira* **/9**

**KIROLAK**
**Aloña Mendi Eskubaloi Talderaren denboraldiko lehen norgehiagoka /11**

**Goienka2a**
**Txan Magoaren ikuskizuna Eskoriatzan**

## Abelbururik onenak ikusgai izango dira bihar Elosuko Ferian

Urtero bezala Pilarika egunarekin bat eginik, bihar, egubakoitza, Mendiko Ganadu Feria izango da Bergarako Elosu auzoan. Goizean ganadua izango da nagusi, eta arratsaldean herri kirolak. Auto ilarak ekiditeko, egun osorako autobus zerbitzu berezia jarri dute antolatzaileek. Elosurako lehenengo autobusa 10:00etan aterako da San Martin plazatik, eta jaisteko azkena 19:00etan Santutxutik. Joan-etorriko txartelak 400 pezeta balioko du.

XXIII. feria izango da eta goizeko 9:00etan hasiko da, eta Bergara eta inguruko herrietako abeltzainek euren behi, zaldi, ardi eta, oro har, abelburu ederrenak erakutsiko dituzte. Gainera, erakusketa izateaz gain, lehiaketa ere izango da, eta 13:00etan banatuko dituzte sariak. /4



Inguruko ganadu ederrenak Elosun ikusgai izango dira bihar.

ARTXIBOA

TXANDA

**Oñatikoa izan eta Oñatin bizi**

Txantxiku Dendarixen Alkartia

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

**DATORREN ASTETIK AURRERA EDIZOAK GOIENKARIAN**

# Zazpi aldizkari Goienkarian

Datorren egubakoitzean, abian ipiniko ditugu GOIENKARIAren herrietako edizioak. Hiru edizio ezberdin izango dira eta Oñatik izan ezik, gure ibarreko gainerako herri guztiek izango dute beren astekaria. Hortaz, GOIENKARIArekin, edo denendako komuna izangoo den atalarekin batera, barruan, herrietako edizioa jasoko duzue datorren egubakoitzetik aurrera astero. /2-3

## Akabo fandangoa!

Amaitu dira parranda egunak. Maritxu Kajoi eta Oñatiko Errosaixuak izan dira Debagoieneko azken festak. Urtea amaitu bitartean izango dira jai egunak, baina uda parteko herrietako jai nagusiak bukatu dira. Bergarako Pazkuak izan ziren lehenak eta Oñatiko Errosaixo Bixamona azkena. Egun horretan, astelehenean, ateratako argazkia duzue aldamenekoa. Oñatiarrak mozorroa jantzi eta kalean gora eta behera ibili ziren, nor baino nor originalago. Ikus daitekeenez, umorez eta irudimenez fin dabiltza txantxikuarrak.



LEIRE KORTABARRIA

**MONDRAGOE**

## Kilometroak 2003 Arrasaten egiteko eskaria egin dute

Datorren urteko Kilometroak Urretxun ospatuko da, baina Arizmendi fundazioaren arduradun Felix Ormaetxeak GOIENKARIAri esan dioenez, honezkero egina dauka 2003ko ospakizuna Mondragoen antolatzeko eskabidea. Proposamena joan den domekan egin zuten Beasainen. 25 urte hauetan Kilometroak prestatu izan duten ikastolek oroigarri bana jaso zuten joan den domekan. Ikastola horien artean, hiru dira Debagoienekoak: Mondragoeko San Frantzisko Xabier, Bergarako Aranzadi eta Oñatiko Txantxiku. 1981ean egin zen Kilometroak jaia Arrasaten. 2003.ean berriz ere antolatu gura dute.

HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/15-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Zazpi astekari *Goienkarian*

























## Datorren egubakoitzetik aurrera GOIENKARIArekin astero-astero zure herriko aldizkaria ere jasoko duzu

GOIENKARIA

Datorren egubakoitzean, abian ipiniko ditugu GOIENKARIAren herrietako edizioak. Hiru edizio ezberdin izango dira eta Oñatik izan ezik, gure ibarreko gainerako herri guztiek izango dute beren astekaria. Hortaz, GOIENKARIArekin, edo denendako komuna izango den atalarekin batera, barruan, herrietako edizioa jasoko duzue datorren egubakoitzetik aurrera asteroastero.

Esan bezala, hiru edizio ezberdin izango dira. Mondragoekoan, *Arrasate Press* eta Aramaioko *Txirritola* batuko dira eta 24 orrialde izango ditu, horietatik bi, Aramaioko berriendako. Bergarakoan, *Berrigara*, Antzuolako *Kontuola* eta Elgetako *Goibekokale* batuko dira. Hori ere 24 orrialdekoa izango da eta horietatik, *Kontuola*k eta *Goibekokale*k bina orrialde izango dituzte. Azkenik, Aretxabaletakoan, *Aretxagazeta* eta Eskoriatza eta Leintz Gatzagako berriak jasoko dituen *Ze barri?* batuko dira. 12 orrialde izango ditu, oraingoz. Urriaren 19tik aurrera, hortaz, argi dago, Debagoienean ezer ez da berdin izango.

## ENEKO AZKARATE/Goienako prentsa arloko zuzendaria

# *“Inprimatzen aurrezten dena, edukietan inbertituko dugu”*

**Eneko Azkaratek Goienako prentsa arloko lantaldea osatu eta herri aldizkarien birmoldaketa prozesuan jardun du azken hilabeteotan.**



**Herri aldizkariak desagertu egingo dira?**

Ez, hori ez da kontua. Gaur egun Debagoienean ditugun herri aldizkari guztiek euren izaerari eta izenari eutsiko diete. Hori bai, aldatu egingo dira: maiztasunari dagokionez, denak astekari izango dira; formatuari dagokionez, egunkari formatura pasatuko dira. Azkenik, GOIENKARIAren barruan joango dira. Hortaz, GOIENKARIAren herrietako edizio bihurtuko dira.

**Zer onura ekarriko die irakurleei aldaketa honek?**

Egunkari formatura pasatu eta prentsa-paperean egingo denez, inprimatze kostuak merkatu egingo dira. Hortik aurrezten duguna, edukietan eta lantaldean inbertituko dugu. Horrek produktu erakargarriagoa egiten lagunduko du, hau da, informazio aldetik osatuagoa eta interesgarriagoa. Sail berriak, argazki handiagoak...

**Eta aldizkari guztiak astekari izango dira...**

Bai. Orain arte, *Arrasate Press* eta *Berrigara* bakarrik ziren astekari. Aurrerantzean, ostera, ibarreko eta norberaren herriko albisteak jasoko dituzte herritarrek astero. Albiste freskoagoak ekarriko dituzte aldizkariek.

## GOIO ARANA/Goienako diseinu arloko zuzendaria

# *“Helburua da produktu berri, moderno eta erosoa eskaintzea”*

**Goio Arana arduratu da herri aldizkari guztiak egunkari formatu bihurtzen. Goiok diseinatu ditu GOIENKARIAren herrietako edizioak.**



**Gaur egungo herri aldizkariekin konparatuta, oso ezberdinak izango dira edizioak?**

Argi dago formatua aldatu egingo dela; eta, alde horretatik, ezberdinak izango dira. Formatua aldatzen dugunez, diseinua ere goitik behera aldatuko dugu.

**Eta zelakoak izango dira aldizkariak?**

Diseinuari dagokienez, itxura modernokoak, berritzaileak; baina, era berean, garbiak, funtzionalak eta gauzak errez topatzeko modukoak. Irakurtzeko errazak.

**Denak berdinak izango dira?**

Orain arte, aldizkari bakoitzak diseinu propioa du. Batzuk politagoak eta berriagoak. Aurrerantzean, itxura aldetik antzerakoak izango dira eta, bestalde, GOIENKARIAren atal komun edo gorputz nagusiarekin ondo uztartuko dira. Bakoitzak bere izaerari eutsiko dio, baina segituan igarriko da enbor berekoak direla. Alde horretatik, uniformatu edo bateratu egin dugu.

**Beharrezkoa zen aldizkariendako diseinu aldaketa hau?**

Bai. Aldaketa bestela ere bazetorren, baina aldiko behin ona da produktuak itxuraldatzea, berritzea.

## GOTZON ARZELUS/Goienako komertzial saileko burua

# *“Aldaketa honekin, eskaintza osatuagoa egingo zaie bezeroei”*

**Goienak prentsa, telebista eta irratia ditu. Lehenengo biak ibar osoan hedatuak. Irratia, Arrasaten bakarrik. Goienako komertzial saileak hiru medioetako publizitatea kudeatzen du. Gotzon Arzelus da taldeko burua.**



**Formatua eta maiztasuna bateratzeak abantailak ekarriko dizkie iragarleei?**

Bai, oso garrantzitsua da iragarki bat jarri duenarendako ahalik eta euskarri gehien edukitzea, premien arabera, bata edo bestea aukeratzeko. Hortaz, aukera zabaldu eta eskaintza osatuagoa egin ahal izango diegu bezeroei. Aurrerantzean, Aretxabaletako dendari batek, esaterako, Debagoien osoan edo hark nahi duen herrian zabaldu ahal izango du mezua astero. Dendariak berak aukeratuko du.

**Hemendik aurrera, gainera, herrietako edizioek tirada handiagoa izango dute, ezta?**

Bai, Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako edizioek zabalkunde handiagoa izango dute orain arte *Arrasate Press*ek, *Berrigarak*, *Aretxagazetak* edo *Ze barri?*k zutena baino. Prezio berbertsuan, jende gehiagorengana helaraziko du iragarleak mezua. Bestalde, formatua handitzen denez, iragarkiak ere handiagoak izango dira. Horrez gain, bezero batek komertzial bakarra izango du eta ez aldizkari bakoitzeko bat. Horixe da beste abantaila bat.

# Beste herri aldizkari batzuendako eredu izan daiteke GOIENKARIA

Bere garaian *Arrasate Press* herri aldizkariendako eredu izan zen, eta GOIENKARIArekin ere antzekoa gerta daiteke. Izan ere, gure moduan, herriko eta ibarreko berriak euskaraz, astero eta egunkari formatuan argitaratzeari ekingo dio oraingo udazkenean beste herri aldizkari batek, Durangaldeko *Eraz*ek, hain justu. Hortaz, GOIENKARIAk orain dela ia urtebete ekin zion bideari jarraituko dio. *Eraz* astekaria Durangaldeko hainbat etxetan banatzen da, baina ez denetan, 3.000 ale banatzen dituzte eta astero. Durangaldean, 54.000 biztanle inguru bizi dira. Durangoko Berbaro euskara elkarteak argitaratzen du *Eraz*. Elkarte horrek Durangalde osorako telebista abiatzea du helburu. Eta asmo horrekin hasi ziren orain dela pare bat urte. Hala ere, euren proiektua gizarteratzeko modu egokiagoa iruditu zitzaien lehenenik eta behin prentsa proiektua sendotzea. Hortaz, lehenbizi, astekaria ahalik eta jende gehienarengana helarazteko egitasmoa abiarazi nahi dute. Horrela, gaur egungo Din A-4 edo ohiko aldizkari formatutik A-3 edo egunkari formatura egingo dute jauzia. Izena ere aldatuko diote astekariari: aurrerantzean, *Anboto* izango da Durangaldeko aldizkaria eta 3.000 aletik 10.000ra igoko dute tirada. Egunkari itxurako astekari berriak 24 orrialde izango ditu eta Elorrio, Durango, Abadiño, Mañaria, Atxondo, Berriz, Zaldibar, Garai, Otxandio, Iurreta eta Izurtzan banatuko da, doan. Orain arte, 3.000 pezetako harpidetza kuota ordaindu behar izaten zuten *Eraz* jaso gura zutenek. Azaroaren 9an aurkeztu nahi dute zerogarren alea. Hasiera baten, 15.000 ale banatuko dituzte eta, gero, izena ematen dutenei banatuko diete, esan bezala, doan. *Eraz*ek hil honen 19an argitaratuko du azken alea. Proiektuan, Durangoko Berbaroz gain, Elorrioko Barriketan, Iurretako Gurien bai eta Zaldibarko Eixu euskara elkarteek ere hartuko dute parte.

**Durangaldeko *Eraz* astekaria ere itxura aldatu eta egunkari formatuan argitaratuko dute aurrerantzean, *Anboto* izenarekin.**

# Topagunean batzen dira Euskal Herriko tokian tokiko hedabideak

Sarri aipatu da gure ibarrean abiarazi dituzten hainbat eta hainbat ekimen beste batzuendako eredugarri izan direla. Horrela izan da herri hedabideei dagokienez. Baina Debagoiena ez da uhartea. Gurean beste toki batzuetan baino aurreratuago gaude tokian tokiko hedabideei dagokienez, baina ez gara bakarrak. Beste leku batzuetan ere badira euskarazko herri hedabideak, aldizkariak, batez ere. Euskal Herrian dauden euskarazko herri komunikabide ia guztiak Topagunean batzen dira. Hain justu, 40 bat hedabide daude Topagunean. Gehienak Gipuzkoakoak dira, baina Bizkai, Araba eta Nafarroakoak ere badira. Hiru irrati, horietako bat Arrasatekoa, eta bi telebista, GOITB eta Nafarroako Ttipi Ttapa, daude Topagunean. Gainerakoak aldizkariak dira: astekariak, hamabostekariak, hilabetekariak... Zabalkunde handiena GOIENKARIAk du, 20.000 ale banatzen ditu astero. Euskara elkarteen federazioa da Topagunea, eta komunikabideenaz gain, beste sail batzuk ere baditu. Euskara elkarteen eta, bereziki, tokian tokiko hedabideen indarra gizarteratzeko jaio zen, besteak beste, Topagunea.

Bestalde, orain dela urte batzuk, informatikako zerbitzua jarri zuen abian Topaguneak. Zerbitzu horren bitartez, Topaguneak produktuak egiteko programa informatiko egokiak jartzen die eskura tokian tokiko aldizkariei. GOIENKARIAri dagokionez, herrietako edizioak abiarazteko erredakzio sistema berria sortu du Topaguneak. Zuek, irakurleok, igarriko ez duzuen arren, aldizkariak egiteko modu berria erabiliko dugu. Informatikaren eta autoedizioaren aurrerapenak eskura izango ditugu. Horrek era sistematizatuan lan egiten lagunduko digu. Programa berria da, guretako propio garatutakoa.

**GOIENKARIA eta herrietako aldizkariak egiteko, programa informatiko eta erredakzio sistema berriak garatu ditu Topaguneak.**

BERGARA | GANADU FERIA

# Egubakoitzean XXIII. Mendiko Ganadu Feria egingo dute Elosun

*Auto ilarak ekiditeko autobus zerbitzua egongo da egun osoan*

MONIKA BELASTEGI

**Urtero bezala Pilarika egunarekin bat eginik, bihar, egubakoitza, Mendiko Ganadu Feria egongo da Elosu auzoan. Goizean ganadua izango da nagusi, eta arratsaldean herri kirolak. Auto ilarak ekiditeko, egun osorako autobus zerbitzu berezia jarri dute antolatzaileek.**



Eguerdiko 13:00etan banatuko dituzte ganadu lehiaketako sariak. MONIKA BELASTEGI

Prest dago dagoeneko, bihar, egubakoitza, Elosun egingo duten Mendiko Ganaduaren XXIII. Feriako egitaraua. Goizeko 9:00etan hasiko da, eta Bergara eta inguruko herrietako abeltzainek euren behi, zaldi, ardi eta, oro har, abelburu ederrenak erakutsiko dituzte. Gainera, erakusketa izateaz gain, lehiaketa ere izango da, eta 13:00etan banatuko dituzte sariak.

Beste hainbat gauza ere egongo dira ikusteko ferian: besteak beste, artisauak, musikariak, talogileak eta hainbat salmenta postu.

Goizean ganadua feriako ardatz nagusia izango da, eta arratsaldean herri kirolen jaialdiak hartuko dio lekukoa. 17:00etan, hasiko da jaialdia, eta aizkolariak eta harri jasotzaileak ikusteko aukera egongo da. Aizkolariak Mugertza eta Bihurri izango dira, eta harri jasotzaileak, berriz, Goenatxo II.a eta Elosu-Korta. Proba mistoa izango da: harria jasotzen, aizkoran eta trontzan egingo dute taldetan banatuta. Herri kirolen saioa amaitzeko, Goenatxo II.a eta Elosu-Korta ehun kiloko bolarekin arituko dira.

**AUTOBUS ZERBITZUA**

Jende ugari hurbiltzen da Feriara urtero, eta sortzen diren auto ilarak ekiditeko asmoz, antolatzaileek, Elosuko Elurtxiki elkarteko kideek, iaz egin bezala, autobusa antolatu dute kaletik Elosura igo eta jaisteko.

Elosurako lehenengo autobusa 10:00etan aterako da San Martin plazatik, eta jaisteko azkena 19:00etan Santutxutik. Joanetorriko txartelak 400 pezeta balioko du.

ELGETA | ABADE PROPIO BARIK

# Abade propio gabe geratuko da Elgeta domekatik aurrera

*Aurrerantzean, Eibarko San Andres parrokia arduratuko da Elgetako parrokiaz*

OXEL EROSTARBE

Domekan, azken bost urteotan parrokiako abade izan den Jose Luis Aperribai agurtzeko meza izango da. Meza Donostiako Gotzaindegiko bikario nagusienetako batek esango du. Aperribaik urriaren 28an esango dio agur Angiozarko parrokiari.

Jose Luis oso gustura egon da Elgetan, herri txikia izanda, harremanak zuzenak eta lagun giroan izan dira-eta. Ikusi duen arazoetako bat da herri nahiko lokalista dela. Herri txikietan gertatzen den joera dela esan digu, solidaritatea gehiago lantzeko mundua zabalagoa ikustea falta da. Elgetan egindako lanak, batez ere, parrokiako obretara, tradizio batzuk berreskuratzera, jaso barik zeuden patrimonio edo gertaerak jasotzera bideratu ditu.

Gustura doa Hernanira. Abadeak dio egitura berria behar dutela, egituratze berri horren barruan ikusten du bere agurra.

**Zertzelada**

**San Andres Parrokiakoek erabakita izango dute, datorren asterako, mezen ordutegiarekin berdin jarraituko duten edo ez eta harrera ordutegia zein izango den.**

Gero eta abade gutxiago egonda eta batez besteko adina 65 urtetik gorakoa izanda, Jose Luisek dio ezinezkoa dela parrokia bakoitzean abade batekin jarraitzea. Hernanin, gaztetan egindako ikasketak praktikara eramateko aukera gehiago izango ditu. Herri handiagoa denez eta Elgetan baino arazo ekonomiko handiagoak daudenez, gizarte arazo handiagoak egongo dira. Gizarte Laguntzaile karreran ikasitakoekin arazoak konpontzen saiatuko da. Urriaren 21ean esango du sarrera-meza Hernaniko parrokian.

Elgetako parrokia Eibarko San Andres parrokiaren pean geratuko da. Bertan lau abade daude, eta haiek esango dituzte mezak. Datorren asterako erabakiko dute mezen ordutegiak berdin jarraituko duen edo ez, eta harrera ordutegia zein izango den. Angiozarko eta Uberako parrokiak Bergarako Santa Marina Parrokiaren pean geratuko dira.

ANTZUOLA

## Drogei buruzko hitzaldia eskainiko du Edex kolektiboak

AINTZANE IRIZAR

Datorren eguenean, urriak 18, emango dute hitzaldia udaletxean, 19:00etan. Hitzaldia honako izenburupean eskainiko dute: "Zure seme-alabei drogei ezetz esaten laguntzeko 10 urrats". Edex kolektiboa Gobernuz Kanpoko Erakunde a da, eta hezkuntzaren alorrean dihardu sortu zenetik. Hala ere, droga mendekotasunen prebentzioaren alorrean lan egiten du batez ere.

Datorren egueneko hitzaldia gurasoei zuzenduta dago; Edexeko ordezkarien esanetan, edozein gurasorentzat izango da interesgarria hitzaldia, baina, bereziki, nerabeen eta nerabezarora iristear dauden gaztetxoen gurasoei zuzendutako hitzaldia da datorren eguenekoa. Hitzaldi horretan, prebentziorako kontuan hartu beharreko hainbat faktoreren berri emango die Edexeko kideak; horien artean garrantzitsuena, guraso eta semealaben arteko komunikazioa da; hori ei da drogen mendekotasunaren prebentziorako gakoa.

OÑATI | ALOÑAKO GURUTZEAK 100 URTE

# Dagoeneko apaindu dute Aloñako gurutzea, zapatuko urtebetetzerako

*Uriarte gotzainak emango du meza, 100. urteurrena ospatzeko*

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 13an, zapatua, beteko ditu Aloñako gurutzeak 100 urte. Hori dela eta, hainbat ospakizun egon dira azkeneko urtean. Zapatukoa izango da, baina, ospakizun nagusia. Goizeko 8:30ean aterako dira plazatik, eta Aloña aldera abiatuko dira. Hiru orduan Aloñara iristea espero dute. Han, hamarretakoa egiteko aukera izango dute. Ondoren, meza ospatuko dute; Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak emango du meza. Meza ostean, mendeurrenaren oroimenez gurutzean jarri duten plaka agerraraziko du Juanito Zelaia 'Upain'ek. Urtebetez lanean aritu ondoren, txukun laga dute gurutzea mendeurreneko ospakizunen antolatzaileek; burdinezkoa izanik, nahiko hondatuta zegoen gurutzea, eta altzairu herdoilgaitzez estali dute. Zapatuan, beraz, berrituta ikusi ahal izango dute Aloñara joaten direnek. Gurutzearen alboan dagoen mendiko aterpea ere eraberritu dute, eta han ere plaka bat jarri. Alkateak agerraraziko du plaka hori zapatuan.



Irailaren 22an ere meza ospatu zuten Aloñan. KONTZEJUPETIK

Ekitaldi horien ondoren, musikaren txanda izango da: Oñatiko abesbatza, txistulari banda eta bertsolariak arituko dira, besteak beste. Ondoren, erromeria egingo da trikitilariekin. Bestalde, aipatu behar dugu Aloña Mendiko espeleologia taldeak ere parte hartu nahi izan duela ospakizun hauetan; hori dela eta, Gomistegiko haitzuloa zabalik egongo da goizeko 11:00etatik 15:00etara, nahi duenarentzat.

LEINTZ GATZAGA

## Bake epailea hautatzeko eskaerak aurkezteko epea gaur bukatuko da

MIRARI ALTUBE

Datozen lau urteotan Leintz Gatzagan bake epailea izateko eskaerak aurkezteko epea gaur bukatuko da. Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira idatziz, eta hautagaiek hainbat baldintza bete beharko dituzte: batetik, adinez nagusia izatea eta ezintasunik ez edukitzea eskatzen diete; eta bestetik, epai eginkizunak betetzeko debekurik ez izatea; beste betebehar bat da Leintz Gatzagakoa bertakoa izatea.
Bake epaileak, bestalde, eginkizun ugari izango du: zitazioak notifikatu, ezkontzetako espedienteak bideratu, jaiotza, heriotza eta ezkontzen artxiboak osatu, eta adiskidetze-egintzak aurrera eroan, beste batzuen artean. Azken honen berri jende gutxik badauka ere, auzokideen edo herritarren arteko eztabaida eta tira-birak konpontzeko bide samurra eta gasturik bakoa da. Bake epailea lau urtean behin aldatzen da, eta azken lau urteotan Jose Inazio Beloki izan da.

**ARAMAIO** MARGO LEHIAKETA

# Aire libreko margo lehiaketa eta 'rally-sprint'a urrian

UBANE MADERA

Ekitaldiz ekitaldi dabil Aramaio azkenaldian. Horren adibide dira bihar, egubakoitza, izango den X. Margo Lehiaketa eta urriaren 20ko *rallysprint*a.

Margo lehiaketan edozeinek parte har dezake, eta edozein teknika erabili ahal izango da. Partaideak bi taldetan banatuko dituzte: hamasei urtetik gorakoak eta hortik beherakoak.

Goizeko 09:00etan hasi eta 11:00ak arte egin beharko dituzte margolanak, Aramaioren eta inguruaren gainean. Gero, 14:30ean, bazkaria izango dute guztiek. Eta arratsaldeko 18:30ean, epaimahaiak erabakiaren berri emango du. Segidan, sari banaketa izango da Sastiñan. Lehenengoak 100.000 pezeta eta plaka jasoko ditu; bigarrenak 50.000 eta plaka, eta hirugarrenak, 40.000 eta plaka. Hamasei urtetik beherakoendako, berriz, lehenengo saria 25.000 pezeta eta plaka izango da; bigarrenarendako 10.000 eta plaka, eta hirugarrenarendako 5.000 eta plaka.

Era berean, egunean bertan hasi eta urriaren 21era arte erakutsiko dituzte egindako lanak. Eta lanok jasotzeko epea urriaren 22tik 30era artekoa izango da.

**'RALLYSPRINT'A**

Bestalde, eta aurrez esan bezala, datorren urriaren 20an, *rallysprint*a jokatuko dute Aramaion. Proba hori puntuagarria izango da *rallysprin*eko euskal gidarien txapelketarako, *rallysprin*teko gidakideen euskal trofeorako, *rallysprin*eko junior mailako gidarien eusk al trofeorako eta *rallysprin*eko junior mailako gidakideen euskal trofeorako. Azkoaga auzotik Kurtzetako mendaterainoko arteko errepidean jokatuko dute *rally*a. Urriaren 15era arte eman ahal izango da izena.

**Zertzelada**

**Egun bereko arratsaldean emango du epaimahaiak erabakiaren berri eta gero sariak banatuko dituzte, Sastiñan. Epaimahaikideak margolari ezagunak izango dira.**

**ARRASATE** EUROA

# Merkatariendako dirulaguntzak euroaren beharretara egokitzeko

*Agiriak euskaraz edo ele bitan ipintzeko laguntzak izango dira*

UBANE MADERA



Datorren urte hasieran indarrean jarriko den Eurora egokitzea da asmoa. MONIKA BELASTEGI

Euroa laster gurean dela-eta, agiri berriak egin beharko direnez, merkataritzako agiriak euskaratzeko egitasmo berria jarri du abian Arrasateko Udalak. Aldatu beharreko agirien artean, zenbait inprimaki mota izango dira, esaterako, albaranak, fakturak, nominak, eta abar. Eta Udalak uste du aukera ona dela agiri berriak euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) egiteko. Horrela, bada, doako itzulpen zerbitzua ipini du Udaleko Euskara Zerbitzuak merkatariendako. Hau da, aldatu edo idatzi beharreko agiria hara eraman eta Udala bera arduratuko da zuzen idazten. Horrez gain, baina, dirulaguntzak ere jaso ahal izango dituzte merkatariek agiriak itzultzearren. Hain justu, kostuaren %50eko laguntza emango diete irudi korporatiboa euskaraz ipintzen duten erakundeei; hori bai, gehienez ere, 20.000 pezeta. Eta, kostuaren %15eko dirulaguntza irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz ipintzen duten erakundeei, gehienez ere, 15.000 pezeta.

Kartazalak, idazpurudun orriak, bisita txartelak, albaranak, fakturak, ibilgailuen errotulazioa eta antzerakoak hartuko dira irudi korporatiboen elementutzat, hortaz, horien itzulpenagatik jaso ahal izango da dirulaguntza.

Hori bai, baldintza jakin batzuk bete beharko dira dirulaguntzak jasotzeko: batetik, testua zuzen idatzita egon behar da (horretarako da Udaleko itzulpen zerbitzua); eta bestetik, izaera ez ofizialeko erakundeek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Informazio gehiago gura duenak Udalera jo beharko du eta Aintzane Lasagatik galdetu edo, bestela, 943793090 telefonora deitu. Dagoeneko zabalik dago eskaerak egiteko epea.

Lehendik ere Udalak eman izan ditu antzeko dirulaguntzak (euskaraz ipintzearren), baina hauek bereziak dira, euroaren etorreragatik emandakoak.

**ESKORIATZA** ARTE LAN BERRIA EDERLANEN

# Arte lana jarri dute Ederlan lantegi pareko biribilgunean

*Bi eskoriatzarrek margotu dute astigarra*

MIRARI ALTUBE

Eskoriatzako Ederlan lantegi parean dagoen biribilgunean arte lan motorea jarri dute. Trenbide ingurua egokitzeko egingo dituzten lanen artean lehenengoa izan da. Biribilgunearen erdian jarri duten zuhaitzaren enborra astigar zorrotzarena da. Trenbideko uretz iturriaren alboan zegoen hau, baina industrialdearen lanak direla eta bota egin behar izan zuten. Margotze lanak bestalde, bi eskoriatzarrek egin dituzte, Naiara Errastik eta Josu Errastik, eta erabili dituzten margo gehienak erabat naturalak izan dira. Astigarraren inguruan dauden oholak, trenbide zaharreko trabesak dira. Horrela, garai batean egon zen trenbidea gogoratuko da.



Irudian, Ederlan lantegi aurreko biribilgunean jarri duten astigarra. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** GAZTEMANIAK

# Igor San Juan eta Serial Number Gaztemaniak lehiaketan sarituak

*Opari gisa eurak aukeratutako abesti bat argitaratuko dute CD batean*

AMAGOIA LASAGABASTER

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero musika taldeen inguruan antolatzen duen Gaztemaniak lehiaketan, aurten, herriko musika egile batzuk saritu dituzte. Igor San Juan bakarlariak eta Serial Number taldeak lortu dute Gaztemaniakeko lehiaketan onenen artean sailkatzea.

Guztira Gipuzkoako 28 talde aurkeztu dira. Baina, horietatik, sarituak, 11 talde edo bakarlari bakarrik izan dira. Sari honi esker, orain, irabazleek euren abesti bat Gaztemaniakeko CD batean argitaratzeko aukera izango dute. Gerora, CD hori Euskal Herriko hainbat disko etxetan banatuko dute. Izan ere, Foru Aldundiak bultzatutako lehiaketa honen helburua, Euskal Herriko talde eta bakarlariak bultzatzea da.

Gaztemaniakeko diskoan Igor San Juanen Bat izeneko kanta entzun ahal izango dugu. Serial Numberrekoek berriz, Psycho kaos urdina abestia aukeratu dute.

COMERCIAL BRUNET
MOTOZERRA ESKAINTZA BEREZIA!
Motozerra zaharra ekarrita, **37.398 pta.**-raino emango dizkizugu


Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

GOIENKARIA
Eguena / 2001eko urriaren 11

## Zabalik



JAVIER MARCOS

### Kalitatea

**Zero akatseko mundua. Horixe da helburua: dendena perfektu egitea. Ka-li-ta-te-a. Enpresak, erakundeak, dendak, elkarteak..., denok daukagu zer ikasia! Gobernua ere ahalegin sendoa egiten ari da kalitatearen hedapena gizarteratzeko. Eta egia esateko, geroz eta hobeto gabiltzala uste dut; enpresetan aurrerapauso nabarmenak egin dira eta zerbitzu publikoetan ere begi-bistakoak dira hobekuntzak. Halere, oraindik bada ibili beharreko tartea. Irakurri bestela. Duela gutxi medikuarengana joateko beharra eduki dut (ezer larririk). Lanorduetan tokatu zitzaidan kontsultara joatea. Medikuak esandako ordua baino bost minutu lehenago joan nintzen, badaezpada. Ordu erdiko atzerapenarekin hartu ninduen. Eta azalpenik ez! Medikuntzako bezeroak "pazienteak" dira.**

**Bizikleta estatikoa erostea erabaki dugu etxean. Katalogo bidez eskatu dugu Bartzelonan. Astelehenean etorriko zela agindu ziguten. Gaur osteguna da, oraindik ez da iritsi eta inork ez digu esan zergatik. Ez dakit bizikleta ekarri behar duena bere gainean entregatzera datorren eta ez ote den konturatu estatikoa dela, ez dela mugitzen. Ikusiko dugu zertan bukatzen den istorioa!**

**Automobileko errebisioa egitea ere tokatu zait. Tailerrera deitu eta txanda hartu ondoren, automobila han itxi nuen adostutako egunean, goizean goiz, gainera. Arratsaldeko 18:00ak aldera automobilaren bila joan eta ukitu gabe zegoela esan didate. Hori bai, sentitzen dutela eta ea posible nuen beste egun batean eramatea. E?**

**Telebista digitala etxean instalatzeko beroaldia ere sartu zitzaidan. Dendara joan, izena eman eta handik egun pare batera instalatuta edukiko nuela pentsatu nuen. Ja! Dagoeneko dendara joan nintzenetik bi aste pasatu dira, eta beroaldia pasatzen ari zait. Nire lankide batek, lau hilabete itxoiten egon eta gero, azkenean amore eman du.**

**Lau adibide dira, besterik ez, baina oso adierazgarriak. "Bidea ezagutu uste izatea da galbiderik onena" (Txinatar esaera).**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

### Elgetako Udalari

Hiru hitz, hiru galdera San Roke kaleko azken etxe-multzoa dela eta.

1. Zer interes berezi egon da San Roke kaleko azken multzo munstroa egiteko, Eibartik datorren errepideari ibilbidea azken orduan aldarazteko —abuztuaren 16an egindako bileran onartuta, errekurtsoak jartzeko 15 eguneko epearekin eta oporretan— Zeleta lantokian liskarra eragiteko eta Olabarriari abisu gabeko lur jana egiteko?

2. Hainbeste tentsatu behar al zen soka, etxe-multzo "zoragarria" horrela egiteko? Ez al zegoen lur urbanorik toki hobe batean?, Horren estu bizi al gara Elgetan? Nahi eta nahi ez egin behar al zen?

Hainbeste modifikazio (Arau Subsidiarioetan, errepidearen ibilbidean) eta liskar, interes ezkuturik gabe?, kontuan izanda alternatibak bazeudela.

3. San Roke kaleko urbanizazioa dotoretzeko, plazatxoa dago proiektatuta. Hori egin ahal izateko, eta egindakoak eginik, San Roke 38 zenbakiko etxeak traba baino ez die egiten. Udalaren proposamena etxea botatzearena izan da, atzerago berregiteko —altuagoa, jakina—. Interesa, momentuan, promotoreena besterik ez da.

Indarrean dagoen PER legeak babesten gaitu. Udalak ezin du orain gure aurka jo, baina abisatuta egon bagaude. Bi-hiru urte barru Arau Subsidiarioak aldatzekotan dira. Orduan, salduta egongo garen susmo sendoa dut. Erasoa ez da txukuna izan.

Bukatzeko, eta beste bost hilabete pasatu baino lehen argibideak emango dizkidazuelakoan, agurtzen naiz.

Azken oharra: lurraren espekulazioa kontrolatu beharra badago, promotore eta etxegileena askoz gehiago.

IRENE OLABARRIA
Elgeta

### Zorionak Garita!

Domeka honetan urteak betetzen dituzula eta, hementxe gaude biok zu zoriondu nahian.

Aurtengo zure urtebetetzea berriz ere espetxean igaroko duzu, baina gu pozik gaude seguruenik datorren urtekoa elkarrekin izango delako. Zu beti bezain jator jarraitzen duzula ikusteak asko pozten gaitu, eta urte kopurua handitzen joan arren, zu zoragarri mantentzen zarela ikusten dugu.

Beno ba, guapisimo, zorionak berriz ere, hartu itzazu gu bion partez musu piloa, eta laster elkarrekin egongo garenez, ordura arte Joseba! Jo ta ke presoak etxeratu arte!

IRATI ETA ALAITZ ARANZABAL ZULOAGA
Arrasate

## Hemeroteka

### Euskararen aurka ez omen doan Nafarroako Gobernua

Euskararen aurka hainbeste neurri atera ondoren, Nafarroako Legebiltzarrean, Nafarroaren egoeraren inguruko eztabaidan, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakaria hauxe esaten ausartu da: "Gure politika ez doa euskararen aurka; alderantziz, askatasun eta begirune parametroetan indartzen du".

Zuria beltza dela sinetsarazi nahi digu, eta beltza zuria. Gaiaz inolako informaziorik ez duen hiritarrari zuzendutako esaldia, edo begiak itxita eta belarriak estalita eduki nahiago dituen orori bideratuta. Bestela, ergeltzat gauzka nafarrok. Haren politika anker eta genozidaren erakusgarri, 2001eko irailaren 3an hartutako Akordioa argitara ateratzen dugu.

Iruñeko hiritar batek lanpostuen bi deialdiren aurkako helegiteak paratu zituen euskaraz. Erantzunak, ordea, erdaraz bidali zizkioten (helegiteak errefusatuz, jakina). Erantzunak euskaraz bidaltzeko eskaera ikusirik, hona Gregorio Eguilaz Gogorza Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza Departamenduko Funtzio Publikoaren Antolaketarako Zerbitzuko Zuzendariaren erantzuna: ez dago eskaera hori onartze- rik, indarrean dagoen araudiaren arabera (372/2000 Foru Dekretuaren 15. artikulua eta Eremu Mistoan Dekretua aplikatzeko Ekintza-Planaren 4. artikulua).

Horrela, orain arteko ohiturarekin apurtzen du Nafarroako Gobernuak. Orain arte holako eskaera zehatz baten aurrean, agiria eskuratzen zuen. Sistema ez zen inondik inora egokia euskaldunontzat, baina erabateko mespretxua saihesten zuen. Orain mespretxu hori ardatz moduan hartzen du. Gainera, emandako arrazoiak bitxiak dira. Dekretuaren 15. artikuluak ez baitio ezer eremu mistoko herritarrei egin beharreko jakinarazpenei buruz. Bai, ordea, Ekintza-Planaren 4. artikuluak. Kontua da Ekintza-Plan horrek bere aurka dituen helegiteen inguruan, Nafarroako Gobernuak argudiatu duela benetako arauak ez direla, bere langileei emandako aginduak besterik ez direla, eta arauak ez izateagatik errekurtsoak jartzerik ez dagoela. Hala ere, Auzitegian hori defenditu arren, arauak ez diren horiek arau bihurtzen dira eskaera bati uko egiteko.

IÑAKI ARRIZIBITA
Egunkaria, 2001-10-10

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Gaur egun, 65 urte betetzean heltzen zaigu erretiratzeko ordua. Hala da Gizarte Segurantzari kotizatutako soldatapeko lan gehienetan. Orain dela urte batzuk, oso ohikoak izan ziren aurretiko erretiroak, hau da, lanik ezak eta industria prozesuaren eraldaketak behartuta, gazteago erretiratu ziren asko eta asko. Orain, berriz, pentsioen sistema kolokan jarri izan da. Erretiratuak baino gehiago, langileak behar dira. Erretiratzeko adina handitu egin beharko litzateke?

# Ibarretxek hauteskundeak aurreratzea ondo ikusten duzu?

## Ona da lanean jarraitzeko aukera ematea



REGINO VALLE
Erretiratua

Gaur egun 65 urte beteak izan behar dira erretiratzeko. Horixe agintzen du legeak, eta nire ustez ondo dago horrela. Hala ere, lan guztiak ez dira berdinak. Kamioi edo taxi gidari batek, irakasle batek, suhiltzaile batek…, ez dute erretiratzeko adin muga berdina eduki beharrik, lan oso ezberdinak egiten dituzte-eta. Beraz, nire ustez beharrezkoa da erretiratzeko adin muga jakin bat finkatzea, baina ez denentzako berdina, lan motaren araberakoa baizik. Hori bai, lan bizitza errespetatuz eta ez batez bestekoa. Gaur egun, 65 urte bete eta erretiratzeko ordua heltzen zaigunean, 35 urtez kotizatu badugu, soldata guztia jasoko dugu, hau da, ehuneko ehun. Eta soldata finkatzeko orduan, azken 15 urteetan kotizatu duguna hartzen da kontuan. Hau ez zait justua iruditzen, jo dezagun azken 15 urte horietako batean lanik egin barik egon garela, edo bajaren bat hartu dugula. Bada, erretiratzen garenean, igarri egingo dugu soldatan.

Gaur egungo bizi kalitatea eta orain dela hogei urtekoa, esaterako, ez dira berdinak. Egun, 65 urterekin lan egiteko sasoian gaude. Ostera, orain dela urte batzuk ez zen horrela: jendea gazteago hasten zen lanean, eta lanak gaur egungoak baino gogorragoak ziren normalean. Horregatik, pentsa dezakegu hemendik urte batzuetara 65 urte gazteegi izango dela erretiratzeko.

Bestalde, guztiok erretiratzen bagara, nork mantenduko gaitu? Pentsioak gastu handia dira gizartearendako, eta zeozertan pentsatu beharra dago. Esaterako, 65 edo 70 urtean jar dezakegu erretiratzeko adin muga, baina erretiratzea nahi ez duenari lanean jarraitzeko aukera ematea ona dela uste dut, beti ere kotizazen jarrituko badu.

Beste kontu bat: erretiratzen garenean, produkzio sistematik erretiratzen gara, baina ez, ordea, gizartetik. Erretiratuak lanean jarraitu behar du, dela gizarte arazoetan, Gobernuz Kanpoko Erakundeetan edo zaharrei laguntzen. Erretiratuak badauka zeresanik, ez da gizarte parasitoa, eta jasotzen duen moduan, emateko gertu egon behar du.

**"Pentsa dezakegu, hemendik urte batzuetara 65 urte gazteegi izango dela erretiratzeko"**

## Adinak behetik ditu mugak, ez goitik



XABIER LARRAÑAGA
Sindikalista

Erretiratzeko adinak behetik ditu mugak, eta ez goitik. Baldintza batzuk badaude erretiratu ahal izateko, 15 urte gutxienez Gizarte Segurantzari kotizatu beharra eta 65 urte beteta izatea. Bakarrik 1967. aurretik kotizatutakoek dute aukera 60 urte bete eta gero erretiratzeko. Badira pertsonak 65 urtetik gora lanean dihardutenak, emakumeak, gehienbat, bere garaian Gizarte Segurantzari kotizatzerik ez zutenak izan eta erretirorako baldintzak oraindik ez dituztenak betetzen. Nahi baduzu, eta osasunak laguntzen badizu, 80 urtera arte ere lan egin dezakezu. Hala ere, denok dakigu horrela ez dela gertatzen, horretan naturak agintzen du-eta. Beraz, argi gera bedi legeak ez duela mugarik ezartzen, baina enpresa itunetan jasoz gero, pertsona bat behartu daiteke aurretik erretiratzera.

Bestalde, inork ez du interesik adineko pertsonak lanpostuetan iraunarazteko, garai bateko prestakuntza ez da gaur egun behar dena, eta adin batetik aurrera ez du lanerako gaitasun berak irauten. Garbia da enpresariek adineko langileak aldatu nahi dituztela, hara hor, bestela, Errelebo Kontratua, esate baterako, azkenaldian lanean zabaldu den praktikarik interesgarrienetako bat. Berau sindikatuek bultzatu dute, baina enpresariek ere oso gogo onez hartu dute. Gaur egun teknologian gertatzen ari diren aldaketak ez du zirrikiturik uzten adinekoak denbora gehiago lanean edukitzera zuzendutako inolako politikarik egiteko. Beste gauza bat da Gizarte Segurantzako dirua aurreratzeko asmotan ibiltzea beti bere ustezko defizita aitzakiatzat hartuta, eta jokabide horiek nolabait jantzi beharra gizartearen aurrean.

Gobernutik edo beste nonbaitetik, noizean behin pizten diren susmoak beste bide batetik doaz nire ustez, adinari mugak kendu ez, baina pentsioei ezarri. Beraz, esan nahi dena da lehen 65 urtetik jasotzen dena irabazteko 70 beharko direla, edo horrelako zerbait. Zehaztasun handiagotan ezin gara sartu, oraindik ezer garbirik ez dagoelako. Baina gauzak entzuten direnean, seguru aski zelanbaiteko inkesta edo sondeoak tartean direla, erakarri nahi diren aldaketei buruz iritzi publikoa gertatzeko edo nahasteko izaten da.

**"Garbia da enpresariek adineko langileak aldatu nahi dituztela, hara hor, bestela, Errelebo Kontratua"**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Zer iritzten diozu EEBBek eta aliatuek ekin dioten erasoaldiari?*

## Gora eta Behera

### EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

Urriaren 10ean hasita Frankfurten izango den liburu eta diskoen azoka erraldoia dela eta, Euskal Editoreen Elkarteak, bi ekitaldi egingo ditu Alemaniako hiri horretan. Euskal musika eta literatura ezagutarazteko eta Europako eta kanpoko merkatuetara hedatzeko asmoarekin joango dira. Milaka eta milaka lagun batuko da bertara. Bejondeiela!

### NATO, ZERO PATATERO

Osaba Samen tropek eta bere aliatuek Afganistani eraso diote. Ez zen makala izan irailaren 11n Estatu Batuetan gertatutakoa; ustez (auskalo!) Bin Ladenek gauzatutakoa. Panama, Libano, Irak... eta beste hainbat tokitan gertatutakoak ez ere ziren makalak izan. Finean, interes ekonomiko, politiko, militarren pare-parean dagoen biztanleria zibilaren heriotza, sufrimendua eta inpotentzia, betiko moduan.



MAITE TOLEDO
Bergarako
Udaleko langilea

## Koplak

### Egunak labur

Egunak labur geratzen dira
gu konturatu orduko,
gauza ugari egin nahi baina
ez gara ailegatuko.

Bat egin eta bestean hasi
dagoeneko berandu,
presaka ibili beharrarekin
beharko gara konpondu.

Hala eta ere, norberak hartu
lezake erabakia,
beti gehiago ematen ere
iaioa da gizakia.

Denok dakigu nahi den guztia
ezin daitekeela bete,
baina zabalik utzi nahi ditut
hor makinatxo bat ate.

Ahalegintxo bat egin aurrera
gauzak mejoratzen diran,
denborarekin utzi litezke
nahi horiek bete ezian.

Gauza onenak etorten dira
ez direnean espero,
edota ere etor daitezke
ondo jorratu ezkero.

ETOR SARASUA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza

SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola, Non Zer),
Aintzane Irizar (Berri-Zakua),
Iker Barandiaran (Asteko gaia)

Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Javier Elzo

DEUSTOKO UNIBERTSITATEKO SOZIOLOGIA KATEDRADUNA

# "Gazte eta adinekoen portaerak oso antzekoak dira, biak ere produkzio prozesutik kanpo daudelako"



Gazteen inguruan ikerketa soziologiko ugari argitaratu dituen soziologo beasaindarra da Javier Elzo. Aldizkari eta egunkarietan idatzitako artikuluengatik ezaguna, Deustuko Unibertsitatean eskolak ematen dihardu. Bergara eta Antzuolako erretiratuek antolatutako hamabostaldia berak eskainitako hitzaldiarekin hasi zen.

OXEL EROSTARBE

**Egin duzun lanean, 55-75 adin tarteko pertsonek erretiroaren aurrean duten jarrera zein den jaso nahi izan duzu. Zein helbururekin egin duzue ikerketa?**

Argitaratu ez dugun arren, duela bi edo hiru urte egin genuen ikerketa hau Martin Aginalde Fundazioak eskatuta. Erretiroaren aurrean, erretiratzear zeuden edo ordurako erretiratuta zeuden pertsonek zuten jarrera ezagutu nahi izan genuen. Honetaz gain, adin tarte horretan zegoen jendeak, bere denbora librea zertan eman nahi zuen ikertzen saiatu ginen. Benetan ikertu nahi genuena, 55 eta 75 urte artekoak, arautukako heziketa jasotzeko prest zeuden jakitea zen.

**Zein ondorioetara iritsi zarete?**

Ondorio azpimarragarriena, gehienek, erretiroaren aurrean jarrera oso positiboa agertzen dutela da. Adin tarte honetan dagoen % 85, erretiroarekin oso zoriontsu dela esango nuke. Aztertutakoen % 15, ez dago gustura, ekonomikoki mugatuta ikusten du-eta bere bizimodua.

Denbora librean egingo zutenari buruz ere galdetu genien. Soinketa egitea, bidaiatzea, eskulanak egitea... gustuko dute. Emaitzen arabera, %7 prest egongo litzake arautukako heziketa jasotzeko. Potentzialki, jende asko da, 16.000 pertsona inguru. Honi irtenbidea ematen hasi dira unibertsitateak. Euskal Herriko Unibertsitateak edo Deustuko Unibertsitateak adineko jendearentzat eskolak ematen dituzte.

**Edadetuek osatzen duten taldea handituz doa, honek nola eragiten du gizartean?**

Egia da gero eta jende edadetu gehiago egongo dela. Gipuzkoak hemendik hogei urtera, ez du gaur egun denaren antzik izango, Suitzaren antzekoa izango da. Dugun bizimoduari eusteko, emigranteen beharra izango dugu.

Gazteak gero eta beranduago irteten dira etxetik, gero eta beranduago sartzen dira lan mundura. Erretiroa, berriz, aurreratu egin da. Adin produktiboan dagoen jendea gero eta gutxiago da, 30 urte ditugunean hasi eta 60ra iristean bukatzen da. Honela ezin da daukagun sistema mantendu, laguntzak gutxituz joango dira.

Gaur egun adineko jendearentzat dauden prestakuntzak ez dira etorkizunean egongo. Adineko jendea egoera berrira moldatuz joan behar da, buruaskia izatera ohitu behar da. Ohea sekula egin ez duen erretiratuak, jakin behar du, laster ohea berak egin beharko duela, erosketak egiteko modu berriak daudela, pertsona bati deitu beharko diola etxeko garbiketak egiteko... guztia gainera berak bakarrik.

**Gizartea gero eta indibidualistagoa da, elkarrenganako baloreak galduz goaz?**

Noski baloreak aldatu direla. Pribatu bihurtzen ari den gizarte baterantz goaz, bakoitzak berean, gertukoan pentsatzeko joera nagusitzen ari da. Gizartea gero eta lokalistagoa da, gero eta gehiago, bakoitza bere herrikoa sentitzen da. Ez Euskal Herrikoa edo Espainiakoa, Arrasatekoa, Beasaingoa, Donostiakoa... Printzipio eta ideal handiak gero eta jende gutxiagok jarraitzen ditu. Ekonomikoki gizarte global batean gauden arren, lokalismora bueltа handia ematen ari gara.

Gizarteari dagokionez, mundu guztian ikuskizunak hartu duen garrantzia aipatuko nuke. Telebistan edo irratian gehien jarraitzen diren programak, ikuskizunean oinarritzen dira. Gazteak eta adineko jendea dira batez ere programa hauek jarraitzen dituztenak. Uste dugun baino parekotasun handiagoa dago adin tarte hauen artean. Gazteak eta adadetuak, produkzio prozesutik kanpo daude, eta laguntzako pertsonak dira; beraien jarrera oso antzekoa da kasu askotan.

**Gaur egun zer da gazteek baloratzen dutena?**

Gazteek gehien baloratzen dutena, gauza guztien gainetik leialtasuna da. Fidatzen diren lagunekin, gustuko leku batean eta inoren kontrolpean ez egotea baloratzen dute gazteek. Nagusiek edo adinekoek bezala, gazteek ere elkarrekin egoteko joera daukate. Adin desberdinetako jendea nahastuko den tokiak behar dira. Oso kritikoa naiz Gaztetxe edo Erretiratu Egoitzekin. Lana egiten dutela ukaezina da, baina adin tarte bat besteekiko isolatzen dute. Aspaldian, futbolerako bakarrik elkartzen dira adin desberdineko pertsonak. Ni, aitonarekin poteak hartzera joaten nintzen gaztetxoa nintzenean, aitona eta bilobaren arteko harremana desagertuta dago.

**Egin dituzun ikerketen arabera, gazte euskalduna eta Estatuko gaztearen artean desberdintasunik badago?**

Orokorrean ezetz esango nuke. Europan gazte latino modelo bat dagoela esango nuke, gazte italiarrak, portugesak, frantsesak, espainiarrak nahiko antzekoak dira. Euskal gazteria bera oso anitza da. Batasuna, ENAM inguruan kokatzen den

## ADINEKOAK ETORKIZUNEAN

**"Adineko jendea egoera berrira moldatuz joan behar da, etorkizunean ez dituelako gaur egun dituen laguntza guztiak izango"**

## ADINEKOAK ETA GAZTEAK

**"Erretiratuen Egoitzekin eta Gaztetxeekin kritikoa naiz, adin bereko pertsonak elkartzen dira, baina gizartetik isolatuz"**

## GAZTEAK ETA BIOLENTZIA

**"Gaur egungo gazteak ez dira lehenagokoak baino indarkeria zaleagoak, indarkeria aurrera eramaten duten apurrak bukaeraraino iristen dira, ordea "**

## GIRO POLITIKOA

**"Lizarrako Akordioa eta Terrorismoaren Kontrako Ituna aurrera eramanez politikariak gizartea banatzeko zorian izan dira, eskerrak lortu ez duten"**



EUSKALDUNON EGUNKARIA

gazteria oso apurtzailea da. Drogen legalizazioan, sexu askatasunean, ekologian, sistemaren kontra joatean, kapitalismoaren aurka joatean, intsumisioari dagokionez, eta abarri dagokionez, gazte hauek ikusteko modu aurrerakoiagoa daukate Europako batez bestearekiko konparatuz. Konturatu bazara oraindik ez dut biolentzia ezertarako aipatu.

**Indarkeria eta gazteak etengabe lotzen dira, batez ere gure inguruan. Euskal gaztea horren indarkeria zalea da? Gaur egungo gazteak, beste generazio batzuetakoak baino indarkeria zaleagoak dira?**

Noski ezetz. Gertatzen dena da zer den indarkeria zalea izatea; hau, bakoitzak modu batean definituko genuke. Euskal gazterian, ETAko ekintzekin ados dagoen kopurua berdina da azken 20 urteetan. Noizean behin, terrorismo ekintzaren bat uler dezakeena kontuan hartzen badugu, proportzioa igoko da. Kale borrokan parte hartzeko prest dagoen jendea aztertuz gero, ikusiko dugu proportzioa asko jaisten dela, SEGIkoek ematen dituzten datuen arabera 1.000 pertsona inguru. Kale borrokan parte hartzetik, gutxiengo bat dago ekintza armatuan parte hartzeko prest. Euskal gazteria ez dela biolentoa argi eta garbi daukat. Gertatzen dena da, indarkeria zalea den gazteriaren zati batek ez duela bukaerarik.

Ez dut uste gaur egungo gaztea indarkeria zaleagoa denik. Hori bai, gaur egun indarkeria zale direnetako batzuk, lehengoak baino gehiago dira, bukaeraraino iristeko prest daude. Guk umetan, gerraka jokatzen genuen, baina argi bereizten genuen fikzioa errealitatetik, bagenekien noiz geratu behar ginen.

**Hauteskundeetako emaitzak ustekabean hartu zenituen? Nola baloratzen dituzu?**

Esan nuen, Ibarretxek Batasunarekin paktatuko ez zuela esanez gero erraz irabaziko zituela. Gezurra esango nuke, emaitzak horrelakoak izango zirela pentsatzen nuela esanez gero. Lehendakariak asmatu egin zuen diskurtsoarekin. Seguruenik emaitzetan gehien eragin zuena PP eta PSO-Ek egin zuten kanpaina izan zen, abertzaleen kontra eraman nahi izan zuten jendea, eta hau beraien kontra etorri zen.

Emaitzak ilusio handiarekin hartu nituen. Kontsentsuzko politika aurrera eraman behar dela uste dut, gizarte guztia kontuan hartuz. Euskal gizarteak bakean bizi nahi du, abertzale batzuek dioten moduan nazio eraikuntzan aurrera joan behar bagara, datorren hauteskundeak galduko dira.

**Askotan esaten dute euskal gizartea banatuta dagoela. Gizartea bera dago banatuta ala politikoak dira benetan banatuta daudenak?**

Gizartea ez dago banatuta. Politikoak banatuta daude eta bakoitzak bere aldera egin du azken urteetan. Azken urteetan egin diren Lizarrako Akordioa eta Terrorismoaren Kontrako Ituna gizartea banatzeko zorian egon dira. Abertzaleek arazoa konpontzeko borondate ona izan dute, baina, ezin da herrialde hau eraiki gizartearen ehuneko handia kontuan hartu gabe. Terrorismoaren Kontrako Ituna beste akats garrantzitsua izan da, lehenengoa baino okerragoa.

**Zerbaiterako balioko al du Elkarrik hasi berri duen bake konferentziak?**

Ez dakit balioko duen, baina oso garrantzitsua da nire ustez. Ea jendea parte hartzera animatzen den. Agian, lehendakariak aurrera eraman dituen plenoen ondoren, pixka bat itxaron beharko zen. Batzuek, hauteskundeetako emaitzak onartu ditzaten denbora behar dute eta. Elkarriren ahalegina oso interesgarria eta garrantzitsua da.

**Nola konpondu daiteke arazoa?**

Euskaldunen borondatea onartzean dago gakoa. Gizarte guztia kontuan hartu behar da. Gizarte osatzen dugun denok gustura sentitzeko bideak eraiki behar dira, hortik etorriko da guztiok kontuan hartuko gaituen konponbidea.

## “Deba arroko ehun pertsonaren iritziak jaso ditugu”



OXEL EROSTARBE

**Bailaraka ere jaso dituzu datuak. Emaitzek adierazten al dute desberdintasunik? Beste bailarako edadetuarekin alderatuz, desberdina al da Debagoieneko edadetua?**

Bai, egin dugun lanean bailara bakoitzeko datuak eskuratu ditugu, Deba arroko bi bailarak elkarrekin aztertu ditugu. Esan beharra daukat, daukagun lagina oso txikia dela ondorio zehatz batzuetara iristeko. Ikerketa Gipuzkoako mila pertsonarekin egin dugu. Bailara bakoitzean aztertutako jende kopurua desberdina izan da. Bailara bakoitzeko kopuruak ez dira oso desberdinak, daukagun laginak, ordea, konparaketa okerrak egitera eraman gaitzake, jende oso desberdina aztertu dugueta leku bakoitzean. Bailara honetan ehun pertsonarekin izan ditugu elkarrizketak, hauen artean batzuk gizonak dira, besteak emakumeak, batzuk lanean daude oraindik, beste batzuk erretiratuak. Egia da, desberdintasunak antzematen direla, Deba arrokoa Donostia aldekoa baino zoriontsuagoa dela ematen duela, edo ez dela beste bailara batzuetakoa bezain parte hartzailea. Daukagun datuekin ezin ditugu bailaren arteko konparaketak egin, hori arriskutsua da, errealitatea distortsiona dezakegulako.

**Podiuma**

# Ainhoa Zumalde |TENIS JOKALARIA|

**Ainhoa Zumalde 15 urteko oñatiar gaztetxoa Debagoieneko tenis jokalaririk onenetakoa da. 12 urterekin federatu zen, eta aurten, Gipuzkoako txapeldunorde izan da kadetetan eta maila absolutuan, Oñatin eta Donostian jokatutako txapelketetan. Hala ere, haren esanetan, aurtengo denboraldian ez du bere onena ematerik izan, eta datorren urtean emaitzak hobetzeko helburua dauka. Asteburuan, kadete mailako Irungo Txingudi Txapelketan arituko da.**


Ainhoak Euskadiko selekzioarekin jardun zuen infantil mailan.

**Pozik aurten lortutakoarekin?**

Urte hobeak izan ditut. Aurtengo denboraldian ez dut nire onena ematerik izan. Martxoan, Oñatin, bigarren geratu nintzen kadete mailako Gipuzkoako Txapelketan, baita ekainean ere, Donostian jokatutako Gipuzkoako Txapelketa Absolutuan. Junior mailakoan, aldiz, bigarren kanporaketan galdu nuen. Horrez gain, Euskadiko Txapelketan ez nuen bigarren kanporaketa gainditzerik izan kadetetan eta maila absolutuan. Orain, denboraldia amaitu bitartean, beste bizpahiru txapelketa jokatuko ditut. Ea denboraldia ondo amaitzen dudan. Oraingo asteburuan, kadete mailako Irungo Txingudi Txapelketa hasiko da, eta emaitza ona lortzeko asmoarekin noa.

**Elitean, zure adineko hainbat tenislarik dihardute. Zure ustez, zein da mailarik onena emateko adinik egokiena?**

Ez dakit. Jeneralean, emakumezkoen kategorian gizonezkoetan baino tenislari gazteagoak daude, baina askotan, lehenago *erretzen* dira. Nik uste dut batzuetan goizegi hasten direla goi mailan. Hobe da poliki-poliki joatea, tenisarekin aspertuta ez bukatzeko. Hamazazpi edo hemezortzi urterekin, gutxi gorabehera, sasoi onenean eta hobetzeko tartearekin egon daiteke emakumezko tenislari bat.

**"Eskumako kolpea egiten dut ondoen. Sakearekin, berriz, nahiko irregularra naiz eta errebesa ere hobetzeko daukat"**

**"Kirol teknikoa denez, entrenamendu handia eskatzen du tenisak. Ni egunero ordubetez entrenatzen naiz Oñatiko pistan"**

**Zeintzuk dira zure alde onak eta txarrak? Zer esaten dizu zure entrenatzaileak, Jabi Baltzategik?**

Ondoen, *drive* delakoa, hau da, eskumako kolpea. Sakearekin, berriz, nahiko irregularra izaten naiz, eta errebesa ere hobetzeko daukat. Entrenatzaileak ororkorrean nire jokoa hobe dezakedala esaten dit, baita alderdi fisikoa ere.

**Kirol gogorra al da tenisa? Debagoienean zer-nolako maila dago?**

Nahiko kirol gogorra da. Teknikoa denez, entrenamendu asko eskatzen duen kirola da. Nire kasuan ez, baina goi mailan jokatzeko sakrifizio handia exijitzen du. Ni egunero ordubetez entrenatzen naiz, Oñatin, baina goi mailakoak bost orduz entrenatzen dira.

Debagoienean ez dago teniserako zaletasun handirik. Instalazio gutxi daude, eta uste dut Debagoienean federatutako neska bakarra naizela. Arkaitz Bengoa oñatiarrak ere junior mailan dihardu. Azken urteotan, hainbat tenis pista egin dituzte ibarrean, eta etorkizunean zaletasunak gora egingo duela pentsa daiteke.

**Hala ere, tenisean izarra izatera iristeko Euskal Herritik kanpo irten beharra dago.**

Bai. Maila handiena Katalunian dago eta Valentzian ere entrenatzaile eta instalazio onak dituzte. Era berean, Madrilen eta Andaluzian maila polita daukate. Azken hiru urteotan, udan, Castelldefellsen (Katalunian) entrenatzen izan naiz, eta oso esperientzia polita izan da. Tenisean zerbait lortu nahi izanez gero, irten beharra daukazu, baina sakrifizio handia dakar horrek. Aukera izanda, ez dakit gertu egongo nintzatekeen hemendik irteteko.

**Zeintzuk dira zure jokalari faboritoak?**

Emakumezkoetan, Williams ahizpak, eta gizonezkoetan, Marat Safin, Ferrero eta Kuerten.

EDU MENDIBIL



## Markel Irizar 21.a Munduko Txapelketan

Markel Irizar txirrindulari oñatiarra 21. postuan sailkatu zen martitzenean Lisboan jokatutako 23 urtetik azpikoen Munduko Txapelketan, erloju kontrakoan. Partaideek 33,7 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Irabazlea Danny Pate estatubatuarra izan zen (46 minutu eta 29 segundo), eta Irizarrek bi minutu eta 41 segundo galdu zituen txapeldunarekiko. Markelek errepideko proban parte hartuko du egubakoitzean, eta lasterketa ona egiteko asmoa du.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Luis Mari López Rekarte Futbolaria


López Rekartek hiru urte egin zituen Bartzelonan.

**Realean, Barçan eta Deportivon izan zen.**

**Euskadiko eta Espainiako selekzioekin izan zen.**

**Belauneko lesio bategatik utzi zuen futbola.**

Bere azken urtean Mallorka taldean izandako lesioagatik izango ez balitz, Luisek dio, umore puntuaz, "Donato eta beste batzuk bezala" oraindik jokatzen izango litzatekeela. Mallorka lehen mailara igo zen urtean, 1996-97an, belauneko lesio larria izan zuen Rekartek, eta gura baino lehenago utzi behar izan zuen futbola.

Txutxi Aranguren entrenatzailearen eskutik 17 urterekin Alaves taldean debuta egin zuenetik aurrera, maila bikaina azaldu zuen talde guztietan: Alavesen (2.A eta 2.B mailetan), Realean, Bartzelonan, Deportivon eta Mallorkan, hain justu. Alberto Ormaetxeak deitu zuen Realerako, eta Toshackekin egin zuen debuta lehen mailan. Realean hiru denboraldi egin zituen, eta 1987an Kopako finala irabazi zuen txuri-urdinekin, Zaragozan, Atletico de Madriden kontra. 1988an, Bartzelonarekin fitxatu zuen: "Etxean ez ninduten behar bezala baloratu eta nahikoa jasan behar izan nuen. Kontratua berritzeko negoziazioak oso txarto eraman zituzten, eta alde egitea erabaki nuen. Libre geratu nintzen, eta Bartzelonak Begiristain eta Bakero ere fitxatu zituen urte hartan". Luisek gogoratzen duenez, "Bartzelona munduko klubik onenetakoa da eta ametsetako taldea geneukan. Cruyff nire idoloetako bat zen mutikotan, eta hura zen entrenatzailea". Katalanekin Espainiako Liga, Kopa eta Europako Errekopa irabazi zituen. Errekopako finalean, López Rekarteren gol bati esker irabazi zion Bartzelonak Sampdoriari. Galizian, Deporren garairik onenak bizi izan zituen, orduan hasi ziren-eta *Superdepor*-en gainean berba egiten. Arseniorekin lehen kopa irabazi zuten galiziarrek.

Lesioaren erruz, pentsionista da Luis Mari. Reala anaiagatik jarraitzen duela dio: "Oso txarto hasi dira ligan, baina gora egingo". /E.M.

***"Realean ez ninduten behar bezala baloratu. Negoziazioak oso txarto eraman zituzten, eta Bartzelonara alde egitea erabaki nuen"***



Luis Mari López Rekarte • Arrasate • 1962

**RENAULT**

IBILGAILU KOMERTZIALAK.
Profesionalen artean.

# Ez zaigu horren zaila egin munduko lanbide guztiak kontuan izatea.






**MASTER 1.9 dTi 80 ZP**
**2.515.000 pezetatik aurrera**
(15.115,45 euro)



**KANGOO COMBI 1.2 60 ZP**
**1.552.000 pezeta**
(9.327,71 euro)

**Zure lanbidea edozein dela ere, zatoz Renaultera.**
**Ibilgailu komertzialetan adituak gara,**
**zure beharretara ondoen egokitzen dena aurkitu ahal izan dezazun.**

## MECA

**Erakusketa eta tailerra**: Amillaga, 5. **Bergara**. Tel.: 943 76 40 68
**Erakusketa eta tailerra**: San Andres auzoa. **Arrasate**. Tel.: 943 71 24 72

AENOR
Ingurumen Kudeaketa
CGM-01/082

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko urriaren 11a

Kultura eta Aisialdia

Urriaren 11etik 19ra




# Txan Magoa Eskoriatzan

Umeek eta helduek oso maite dute Txan magoa. Euskal Herri osotik ibili izan da, eta telebistak ere bere joko harrigarrien lilura hurbildu digu. Baina berak, biziko saioak gustuko ditu oraindik, eta non-nahi agertzen jarraitzen du, bere magiaz guztiok zur eta lur utzi, eta gero desagertzen... hurrengo saiora arte. Eskoriatzan izango dugu, urriak 11. Ez da Debagoienera egin duen lehenengo bisita, eta, geu mago izan ez arren, aurrez esan dezakegu ez dela azkenengoa izango. /14

GOIO ARANA

Ikuskizuna | Magia saioa Debagoienean

XANTI ANTERO / TXAN MAGOA

# "Nire poz handiena da, umeei mago euskaldun baten eredua eman izana, eta hitz magikoak euskarazkoak izatea"

**Xanti Antero esaten badizuegu, akaso ez duzue izen hori inorekin lotuko. Baina Txan magoa esanez gero, oso bestelakoa da kontua. Txan, edo Xanti, Donostian jaio zen 1963an, Umeetan bizi da gaur egun eta Eskoriatzan izan berri dugu. Euskal Herriko aztirik famatuena izateak agenda arazoak dakartza, baina berarekin magiaz betetako berbalditxoa izateko aukerarik ere izan genuen.**



ALBERTO ELOSEGI

**Noiz aurkitu zenuen magia?**

Zortzi-bederatzi urte nituela, mago bat sartu zen gure aita-amen tabernara. Pare bat joko egin zituen eta txundituta utzi ninduen; eta hor ulertu nuen magiaren kontzeptua. Handik urte askora, lagun taldeko sasimagoa nintzen. Halako baten, ezagun batek magia liburu bat eskaini zidan. Hurrengo goizean, haren etxean ate joka nengoen... Oraindik irakurtzen dut liburu hori, eta harrituta uzten jarraitzen nau; izan ere, pentsa ezineko mundua zabaldu zidan.

**Nahiz eta trikimailuak jakin, ez duzu hasierako ilusioa galdu...**

Ez, eta horretan datza magoaren lana: nahiz eta mila aldiz errepikatu joko bat, nire harridura musuak berdin-berdina izaten jarraitu behar du, magia joko hori horrela saldu behar dudalako. Hori da oraindik magian sinistea. Nik beste aurpegikera bat jarriko banu, jokoak indarraren erdia galduko luke.

**Magoak antzezle ere izan behar du, hortaz?**

Juan Tamariz mago eta lagunarekin hainbat aldiz egin dut horren gainean berba: magoak mago izan behar du soilik, ala antzezle ere izan behar du? Berak esaten du magoak mago izan behar duela, besterik ez; nik kontrakoa diot. Eztabaida handia dago horren inguruan.

**Magia eta umorea lagun onak dira?**

Bai, bai, oso onak. Hori bai, nik sekula ez dut besteen lepora barrerik egiten; egin behar bada, neure buruari egiten diot. Etika zorrotza erabiltzen dut kontu horiekin.

**Zure hasierak ez ziren hain umoretsuak izan... Bosnian ibili zinen mago moduan. Zelako esperientzia izan zen?**

Pentsa, horrelako egoera baten, umeek pentsa ezineko sufrimendua jasan ondoren etortzen zitzaizkidan; nik ez nuen hizkuntza tutik ere ulertzen, eta hala ere, barrez lehertzen uzten nituen. Helduek esaten zidaten hilabete asko zirela ume haiek ez zutela barrerik egiten. Han konturatu nintzen hizkuntza ez dela muga bat. Oso bizipen pozgarria izan zen niretako.

**Ikusleek zelan eragiten diote ikuskizunari?**

Ikusle bakoitzak bere nortasuna du, eta ezusteak ematen dizkizute. Dena dela, ni edozein publiko motara moldatzen naiz. Gainera, publikoa beti da Txan magoaren konplize, badakitelako magoa naizela. Beste mago ezezagun batzuek esaten didate, herri askotan Txanekin konparatzen dituztela. Umeek badute mago euskaldunaren eredua, eta Txan magoa da eredu hori.

**Hizkuntzak zure alde egin du, ezta?**

Bai, asko zor diot euskarari, eta oso harro nago. Helduondako, Juan Tamariz zen magoaren eredua; baina umeek ez dute Tamariz ezagutzen, eta gaur egun, Espainian, ez dago magoaren eredurik; Euskal Herrian, ordea, bai. Hori da nire poz handiena: umeei mago euskaldunaren eredua eman izana eta hitz magikoak euskarazkoak izatea.

**Jokorik asmatu izan duzu?**

Ez. Baina joko berbera asko alda daiteke mago batetik bestera; izan ere, hor bi gauza desberdindu behar dira: trikimailua eta magia. Trikimailua, mekanika, magiaren zatitxo bat da; jendeak ikusten duena magia da. Niri ilusioa sortzen duten jokoak gustatzen zaizkit. Mago bat teknikoki bikaina izan daiteke, baina akaso ez du horrenbeste ilusiorik sortuko; logikaz ulertu ezin ditugun magia jokoak egitea gustatzen zait.

LEIRE KORTABARRIA

"Nire ustez, magoak aktore ere izan behar du"

"Ulertu ezin ditugun jokoak egitea gustatzen zait"

"Bosniarrei barrea eragitea oso pozgarria izan zen niretako"

## Zer deritzezu hurrengo magoei?

### Marxel magoa

**Familiatik datorkio lanbidea; magoaren semea da-eta. Oso mago ona da, talentu handikoa, eta teknika bikaina dauka. Euskaldun berria da, baina lan handia egiten ari da hizkuntza hobetzeko eta hori eskeertzekoa da. Etorkizun handia ikusten diot.**

### David Copperfield

**Sekulako magoa da. Lagun eta etsai asko ditu, baina nik neuk asko ikasi dut Copperfieldekin. Estiloa ere gustuko dut. Telebistan ere oso ona da, eta ikusleek txalotu egiten dute. Hala ere, emakumeak erabiltzeko, bera janzteko... modua ez zaizkit larregi gustatzen.**

### Juan Tamariz

**Magoa eta magia sortzailea da Juan Tamariz. Teknikoki bikaina da eta jokoekin txundituta uzten zaitu. Hala ere, ez du ilusio sentsazio indartsurik ematen. Baina, bai, oso ona da eta laguna dut, gainera. Munduan bost kartomago on baldin badaude, bera hor barruan dago.**

### Anthony Blake

**Magoa baino, mentalista da Anthony Blake. Nik gustura ikusten ditut beste mentalista batzuen saioak; edozelan ere, Espainian, Anthony Blake bezalakoak gutxi daude. Honek telebistari esker oihartzun handia lortu du. Mentalista ona da, bai.**

Kronika | **Bide Ertzean eta Ocean Colour Scene** Jam aretoan

# Ingalaterratik datoz pop soinuak

**aldeak:** Bide Ertzean eta Ocean Colour Sce-e. **Noiz:** Egubakoitza, urriak 5. **Non:** Jam etoan. **Bildutakoak:** 400 bat lagun.

**B osgarren urteurrena ospatzeko bi rock kontzertu antolatu zituzten Jamekoek joan zen asteburuan. Oraingorako, berriz, beste bi jaialdi iragari dituzte: batetik, The Monolith echno-house jaia zapaturako; estetik, Hooverphonic talde belgikarraren emanaldia domeka luntzerako.**

oan zen astebukaeran bi kontzertu eder ikusteko aukera izan genuen amera hurbildu ginenok. Estiloz ezberdinak, baina biak interesgarriak. Egubakoitzean pop doinuak izan ziren nagusi. Taula gainean bi talde. Bata, Euskal Herrikoa, Ubeda anaien Bide Ertzean. Bestea, Britainia Handikoa, hain justu, Birminghameko Ocean Colour Scene.

Euskaraz abestutako ganorazko popa egiten duen talderik baldin badago, hori Bide Ertzean da. Egia da, hala ere, popak hemen ez duela jarraitzaile askorik. Bana horiek, baina, egubakoitzean amen elkartu ziren. Gehienak, hala ere, Ocean Colour Scene ikusteko. Edozein modutan ere, Bide Ertzeanek gustura laga zituen bildutakoak. Orain dela ez asko, Gsintxuko jaietan ikusteko aukera izan genuen. Katurik ere ez zegoen haien emanaldiari begira eta aurak hotz samar. Halako egoetan normala da. Egubakoitzean, berriz, askoz ere gusturago eta solago antzematen zitzaien, ikusleen berotasunean.

*Grisa* izeneko azken diskoko kantuak eskaini zituzten batik bat.



**Fran Iturbe kitarra jotzaile bergararra eta Ubeda anaiak joan zen egubakoitzean Jamen.** ENEKO AZKARATE

Baina aurrekoetakoak ere bai. Emanaldi motz samarra; hiru ordu laurdenera ez ziren iritsi. Horrela, hobe, oroitzapen gozoagoa uzteko. Fran Iturbe gitarra jotzaileak pop talde ingelesen ikutua eman dio taldeari. Horregatik, egokia iruditu zitzaigun Ocean Colour Sceneren aurretik jotzeko aukeratu izana. Beste talde bat ere bazegoen iragarrita, Mo Solid hain justu, baina ez ziren agertu.

**POP KEMENTSUA**

Bigarren aldiz etorri zen Ocean Colour Scene Jamera. Lehenengoz, orain dela urtebete inguru. Oraingoan, orduan baino apur bat jende gutxiago hurbildu zen, 400 bat lagun. Pop kementsua egiten dute ingelesek. Agian ez power popa, hainbat talde australiarren estilokoa, lirikoagoa eta psikodelia dosiekin. 12 urte daramate taula gainean, eta dagoeneko bost disko dituzte kalean. Azkena, “Mechanical Wonder” izenekoa, aurkeztera hurbildu zitzaizkigun. Hala ere, oso ezagunak diren aurreko diskoetako kantu asko eskaini zituzten.

OCEri, mod mugimenduko talde adierazgarrienetakoaren, hau da, Jam taldearen, eragina antzeman die askok, eta Oasis taldeko Noel Gallagher dute jarraitzaile finetako bat. Jarraitzaile finak benetan, joan zen astean aurreko lerroetan saltoka zebiltzan neskato gazteak. Atzerago, lasaiago baina harreta handiz, helduagoak. Emanaldi ederra eskaini zuen OCEk eta gustura aritu ziren musikariak taula gainean, izerditan blai Fowler kantaria.

Zapatuko kontzertua beste era batekoa izan zen, musika bortitzagokoa. Punk eta rock soinuak izan ziren nagusi. Taula gainean, The Hydromatics, Señor No eta Cool Panic.

ENEKO AZKARATE

## Nire aukera

### Dorleta Kortazar
### Arrasateko Gazte Bulegoko arduraduna



Gregorio Dovali, telebista kate baten, saio kulturaletako galderak prestatzea eskatu zioten. Hori dela eta, hainbat eta hainbat liburu eta dokumentu arakatu zituen Dovalek, eta historia, bitxikeriaz eta kointzidentziaz beteta dagoela konturatu zen. Horiek bildu eta honako liburua idatzi zuen.

Arlo askotako bitxikeriak aurkezten dizkigu egileak: historia militarra, amodioa, eguneroko bizitzako gertakizunak, naturako fenomenoak, hanka sartzeak eta akatsak... Liburu luzea izan arren, oso-oso irakurketa arina eta gomendagarria iruditzen zait.

**'ENCICLOPEDIA DE LAS CURIOSIDADES' Gregorio Doval**




LEIRE KORTABARRIA

## Kaleratu berriak

**an Arantzabal**

IBURUA | *Nobela*



**AZTERREKOAK**
Xabier Aldai
Susa
argitaletxea
214 orrialde

Susak narratiba sailean atera duen liburu hau hamahiru ipuinez osatua dago. Ipuin hauetan misterio handia dago ezkutaturik, baina ez nolanahiko misterioa, ez da-eta misterio harrigarri eta tipikoa, baizik eta eguneroko bizitzan adierazteko eta argitzeko hain zail bihurtzen zaizkigun arrazoi bat edo gaizki-ulertu bat edo sentipen bat. Horiexek guztiak.

Liburu honetan gupidarik gabe idazten du Xabier Aldaik. Susaren narratiba sailean, 41. liburua hemen aurkezten dizuegun hau.

DISKOA | *Umeentzako*



**BOTA GORRIAK**
Karlos
Linazasoro
Anaya-Haritza
argitaletxea
76 orrialde

Imajina ditzakezu bota batzuk, zeintzuk amets egiten eta gauza zoragarriak bizitzen lagunduko dizuten? Karlos Linazasorok uste du fantasia eta irudimena garatzeko era bakarra irakurketa dela, beraz, posible dela ezin ukatu.

Horixe egin dezake liburu hau irakurtzen duenak. Karlosek, liburu honetako protagonistak, sekretu asko dauzka zuri kontatzeko, eta bota magiko batzuk zuri erakusteko, ze, bizi liteke amets egin barik? Maitasun ezohiko bat kontagai.

Liburuan Claudia Ranucciren irudiak ere aurki ditzakezu.

DISKOA | *Bluesa*




**ÑACO GOÑI ETA MALCOLM SCARPA**
Gaztelupeko
Hotsak
2.000 Pta

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak beste pieza bat gehitu dio bere blues katalogoari. Dedikazio handiko lana da, “klasikoei omenaldi bikaina, maitasun eta sentimenduz egina, Tonky de la Peña lagun gitarristak dioen bezala. 1991ko Cambayarako binilotik hartutako hiru zati eta beste bost Malcom eta Ñacoren obretatik hartuak, *Berriz Blues Session*setik lau pieza hartu dira, T. Bone Walkerren *Going Away Party*ren irakurketa malenkoniatsua ere badago Blueszaleendako, bereziki ona.

GOIENKARIA
Eguena / 2001eko urriaren 11

# Urria: 11-19

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**BERGARA**
> **Los colegas de la Vega** taldearen "Ojalemos que aplausen" antzerki lana eguenean, urriak 11, Novedades aretoan, 22:30ean.

**ESKORIATZA**
> **Free-Pelota** taldearen *El marido de la Pakita* datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Jose Arana ikastolako areto nagusian.

**ELORRIO**
> **Druida danza** taldearen *En espera* izenburuko antzerki-lana datorren egubakoitzean, urriaren 19an, Arriola aretoan, 22:30ean.

## Dantza

**BERGARA**
> **Aukeran** dantza konpainiaren *Sutargi* ikuskizuna datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

## Musika

**BERGARA**
> **The Monolith.** Techno jaialdia egubakoitzean, hilaren 13an, Jam aretoan, gauerdian.
> **Hooverphonic** eta gonbidatutako taldea domekan, urriaren 14an, Jam aretoan, 20:00etan.
> **C eta Deverova Chyba** Txekiako hard-core taldeak eguenean, urriaren 18an, gaztetxean, 22:00etan.
> **Backyard babies eta Danko Jones** datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Jam aretoan, 22:00etan.

## Erakusketak

**BERGARA**
> **Jesus Elortzaren** margo erakusketa kultura etxean, urriaren 21era arte.
> **Jesus Mari Agirreren** margo erakusketa Nahikari tabernan.
> **Jose Antonio Laskurainen** margoak La Caixako bulegoan.

**OÑATI**
> **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izenburuko erakusketa Arantzazuko Santutegian. Goizeko 11:00etatik 19:00ak arte.

## Lehiaketak

**ARAMAIO**
> **Aire libreko pintura lehiaketa** egubakoitzean, urriaren 12an, 09:00etatik aurrera.

**ARRASATE**
> **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001 urteetan argitaratua egon behar du eta Internetetik hartutako testuen aintzinatasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartean, 943 77 12 28 telefonoan.

**BERGARA**
> **XI. Kirol argazkien lehiaketa.** Euskal Herriko edozein afizionatik parte hartu ahal izango du eta zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, mota bakoitzeko lau argazki gehienez. Kategoria bakoitzeko onenak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere banatuko dira. Lanak entregatzeko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak: 943 76 30 90.

**DEBAGOIENA**
> **Kirol materiala euskaraz sortzeko beka,** Deba arroko euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII. aldiaren helburua da hiru arlotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarrizko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea bost hilabetekoa izango da. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

**EIBAR**
> **Juan San Martin beka.** Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, ikerketa-bekarako deia egin du. Ikerketa esparruak hauek lirateke: antropologia, hizkuntzalaritza, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea. Beka honen zenbatekoa 1.500.000 pezetakoa izango da. Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea urriaren 23ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 20 68 45 telefono zenbakian.
> **Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa.** Nahi duten argazkizale guztiek parte har dezakete. Gaia librea izango da eta gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru koloretan aurkeztu ahal izango dira. Koloretako zein zuri-beltzeko argazki bildumarik onenak 80.000 pezetako saria jasoko du eta argazki solte onenendako ere sariak izango dira. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da, eta ondoko helbidera bidali beharko dira: Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Portalea. Eibarko Udala. Bista Eder 10. 20600 Eibar. Argibide gehiago 943 20 68 45 telefonoan.

**DONOSTIA**
> **Komiki ez sexisten lehiaketa,** Donostiako Udaleko emakumearen bulegoak deituta. Sari bakarra emango dute, 150.000 pezetakoa. Lanak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Argibideak 943 48 14 13.

**LASARTE-ORIA**
> **Gazteak eta euskara ikertzeko beka.** Beka horren helburua da Lasarte-Oriako gazteek euskararen gainean dituzten jarreren diagnosia egitea. Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, eta bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro). Proiektua eta gainerako agiriak aurkezteko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 37 60 55 telefono zenbakian.

**BILBO**
> **Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa.** Nazio guztietako idazleek parte har dezakete, gai libreko ipuin originalak, argitaratu gabeak eta lehenago beste lehiaketa batean sarituak izan ez direnak aurkeztuta. Ipuinak gehienez DIN A-4 motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita. Ipuinak euskaraz zein gaztelaniaz idatzi ahal izango dira eta beste hizkuntzetatik egindako itzulpenak ez dira onartuko. 550.000 pezeta gordineko sari bana eta 225.000 pezeta gordineko bina azkezit egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan. Lanak helbide honetan aurkeztuko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila. Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa. Ernesto Erkoreka plaza z/g. 48007 Bilbo. Ipuinak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

**ONDARROA**
> **Augustin Zubikarai** nobela laburrendako saria. Lanek (DIN A-4 formatuan makinaz idatzita) gutxienez 50 orrialde eta gehienez 100 orrialdeko luzera izan beharko dute. Sari bakarra emango dute, 4.000 eurokoa. Lanak emateko epea abenduaren 1era arte izango da zabalik. Argibideak Ondarroako Udaleko euskara zerbitzuan, 94 683 36 68 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

**ANTZUOLA**
> **Masaje eta erlaxazio teknikak.** Urriaren 18tik aurrera. Eguenetan, 19:00etatik 21:00etara. Irakaslea: Aitor Alkorta. Izena ematea (5.000 pezeta) urriaren 15era arte zabalik. Argibideak: 943 76 62 46.
> **Umeei ipuinak nola kontatu.** Azaroaren 17an, 24an eta abenduaren 15ean, 10:00etatik 13:30era. Erakuslea: Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko partaidea. Izena ematea (3.000 pezeta) urriaren 31ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 62 46.
> **Grafologia ikastaroa** Udaletxean azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean eta 15ean, 10:00etatik 12:00etara, Irune Ibarraren eskutik. Izena emateko epea urriaren 31n amaitzen da. Argibideak: 943 76 62 46.

**ARETXABALETA**
> **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izena ematea Kultura Etxean, 943 71 10 27 zenbakian.

**ARRASATE**
> **Yoga hasiera ikastaroa,** Arrasate Yoga elkarteak antolatuta. Argibideak: 943 79 35 76.
> **Antzerki tailerra** urriaren 20tik urtarrilaren 26ra, zapatuetan,



MUSIKA

### ERRAMUN MARTIKORENA BERGARAN

Erramun Martikorena kantari baxenabartarrak kontzertua eskainiko du zapatuan Bergaran, Mixel Ducaurekin batera. Ipar Euskal Herriko ahotsik esanguratsuenetakoa dauka Martikorenak eta zapatuko emanaldian *Kantuz sortu naiz eta* (Elkarlanean) bere azken diskoko kantuak zein aurretiko lanetakoak abestuko ditu. Martikorenak kanturako zaletasuna artzain lanbidearekin partekatu du azken 30 urteotan.

**Noiz:** zapatuan, urriak 13. **Non:** Bergarako osoko bilkuren aretoan. **Ordua:** 19:30. Sarrera: doan.

## JAIOTAKOAK

**Oneka Gil Muro**
Bergaran, irailaren 8an.

**Ibai Lasagabaster Mancebo**
Eskoriatzan, irailaren 25ean.

**Nerea Juaristi Berasategi**
Bergaran, irailaren 26an.

**Irati Loidi Aizpuru**
Bergaran, urriaren 2an.

**Kepa Lezeta Iturbe**
Eskoriatzan, urriaren 2an.

**Ibon Muniategiandikoetxea Larrañaga**
Bergaran, urriaren 6an.

## EZKONDUAK

**Ricardo Torres Montesinos** eta **Idurre Zabala Ugarteburu,** urriaren 6an, Bergaran.

**José María Moto Bengoa** eta **Maria Victoria Bengoa Basabe,** urriaren 6an, Aramaion.

**José Miguel Salaberri Urizar** eta **Rosa María Moreno Martínez,** urriaren 6an, Arrasaten.

## HILDAKOAK

**Pilar Losada Murua**
Oñatin, urriaren 1ean,
77 urte zituela.

**Juana Epelde Arando**
Bergaran, urriaren 3an,
90 urte zituela.

**María Moreno Arribas**
Arrasaten, urriaren 4an,
89 urte zituela.

**Maria Dolores Ojanguren Arantzabal**
Bergaran, urriaren 5ean,
88 urte zituela.

**Manuel Marcial Beristain Ruiz**
Arrasaten, urriaren 6an,
52 urte zituela.

**Luis Alzuaran Ulacia**
Elgetan, urriaren 6an,
66 urte zituela.

**Aquilino Fernández Zumaeta**
Arrasaten, urriaren 7an,
46 urte zituela.

**Petra Retolaza Arantzabal**
Bergaran, urriaren 8an,
84 urte zituela.



Datorren zapatuan, urriak 13, ezkonduko da **Javi Badiola**. Plazentziarra da Javi, baina urte asko darama Bergaran lanean. Oñatiar batekin ezkonduko da eta hantxe biziko da bikotea. Horra hor, argazkian, duela hilabete batzuk bere ilobaren jaunartzean. Oraingo honetan, berari egokitu zaio protagonista izatea. Zorionak, bihotz-bihotzez, zure lankideen partez!



**Aitor Urrutia** eta **Pili Fernandez** egubakoitzean, urriak 12, ezkonduko dira Eskoriatzako parrokian. Aramaioko Gantza auzoko familiaren partez, zorionak!

### I. URTEURRENA

Maria
Alberdi Oleaga

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urriak 13,
19:00etan,
**Oñati**ko Mikel Deunaren parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### I. URTEURRENA

Eugenia
Zubiate Otadui



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 14,
12:00etan,
**Elgeta**ko Andre Mari Jasokundean.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### I. URTEURRENA

Nikanora
Etxeberria Erostarbe

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriak 14,
11:30ean,
**Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Zure **Goienkaria** edonora

Herritik kanpo bizi edo ikasten baduzu,
senitarteko edo lagunen bati herriko aldizkaria bidali nahi badiozu,
guk etxeraino eramango dizugu.

**GOIENKARIA + HERRIKO ALDIZKARIA**

- Penintsula: 18,03 € urtean (3.000 pta)
- Europa: 36,06 € urtean (6.000 pta)
- Mundua: 90,15 € urtean (15.000 pta)

Egin harpidetza beheko kupoia **Goiena**ra bidaliz ala telefonoz deituz.

**HARPIDETZA ETA INFORMAZIOA**

**943 79 21 00**

Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 ARRASATE

IZENA ........ ABIZENAK ........
HELBIDEA ........
HERRIA ........ POSTA KODEA ........
KONTU KORRENTEA (20 DIGITO): ........
ALDIZKARIA:
ARRASATE PRESS ☐ BERRIGARA ☐ ARETXAGAZETA + ZE BARRI? ☐

# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7







# Umore giroan

David Peñalver

**APAIZAREN BISITTA**

Mertxe emakume gogorra zan, eta apaizak etxietara eskian juaten zien sasoian, harei be juan jakozen.

- Mertxe, dozena erdi bat arrautza komenturako...

- Ezin izango da, apaiz jauna.

- Zergatik, alaba?

- Ze oilluak hil egin jataz eta semia, gizona eta koiñatua basuan die.

**GUGGENHEIM**

Bi bilbotar:

- Hi, Guggenheim-ek 13.000 millioi balio izan jok.

- Ez jotzak ardura, golak sartzen bajittuk barkatuta jaok.

**PERRETXIKU GUZTIAK JAN**

Soziedadian:

- Hi, gaztia, perretxiku danak jan dittuk anaiakin akordau be egin barik!

- Ez, harekin akordau nok, baiña etorri baiño lehenago jan dittudaz.

**FERRETERIXAN**

Sartu da Elgetako exagerau bat ferreterixan.

- Hi, emoidak hogeita bost metroko barautsa.

- Hogeita bost metroko barautsa? Elgetatik Uberarara subterraniua egin biok ala?

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Zein herritako auzoak dira?

Ondorengo hiru auzo hauek (Apotzaga, Udala, Basalgo) Debagoieneko hiru herritako auzoak dira. Baina zein zeinetakoa?

- Apotzaga (Eskoriatza), Bedoña (Aretxabaleta), Basalgo (Elgeta).
- Apotzaga (Aretxabaleta), Bedoña (Arrasate), Basalgo (Bergara).
- Apotzaga (Eskoriatza), Bedoña (Arrasate), Basalgo (Bergara).

**Erantzun zuzena:** Apotzaga (Eskoriatza), Bedoña (Arrasate), Basalgo (Bergara).

## Soluzioak





# Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Lan-kontu berriak izango dituzu berehalaxe, aurrez ipini zenuen jomugara heldu zara-eta. Horretarako, behar-beharrezkoa duzu hausnartzeko astia hartzea, zure hurrengo helburuak finkatu ahal izateko. Hausnartu, presa barik.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Une honetan, zure ingurukoekin ez duzu hartu-eman onik. Zergatik? Uste duzulako jendeak uler zaitzakeela zuk ezer gutxi esan barik, berba egin barik. Komunika zaitez, berba egin ezazu, jendea ez da igarlea.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Lan-baldintzen hobetzea, soldatan eta karguan, mailaz igoko zaituzte-eta. Buruan dituzun ideia on horiek praktikan jar itzazu, emaitza ezin hobeak lortuko dituzu-eta.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Estres handia izango duzu lanean; zure lankideek ardura ugari ipiniko dituzte zugan. Horregatik, lanez gainezka izango zara. Saia zaitez hasiera-hasieratik gauzak argi uzten, nork bere lana egin dezan, eta, horrela, zu lasaiago egon zaitezen.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Bolada ona amodioari dagokionez; une egokia izan daiteke bikotekidearekin oraintsu izan dituzun gaizki-ulertzeak argitzeko. Bikotekiderik ez dutenendako, hau ere une egokia da lanean pertsona atsegin bat ezagutzeko eta harekin harreman polita hasteko.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Lanean arazoak izango dituzu, kontzentrazio falta dela-eta. Horrek eragingo du akats bat baino gehiago egitea, eta, horren ondorioz, errieta egingo dizute. Bitaminak hartzea komeni zaizu, ohikoa baino nekatuago egongo zara-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lana erruz izango duzu; hori dela eta, familiakoekin denbora laburragoa igaro ahal izateaz gainera, hartu-emana ere hoztu egingo da. Edozelan ere, esfortzu horrek merezi izango du, aspalditik espero zenituen emaitza onak lortuko dituzu-eta.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Buruan dituzun proiektuak atzeratu egingo dira; hori dela eta, ohikoa baino haserrekorrago jardungo duzu eta zure ingurukoei eragingo die. Zutaz aldenduko dira. Ez larritu atzerapen horiengatik, eta aprobetxa ezazu gaizki egindakoak zuzentzeko.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure etxearekin zerikusia duen gastua, espero ez zenuena, egin beharko duzu, eta oraingo hileko aurrekontuak kolpe ederra jasoko du. Bestalde, zure lagun batek lan-proposamena egingo dizu, oso interesgarria eta oso gozagarria diruari dagokionez. Horrek asko lagunduko du zure ekonomia orekatze aldera.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Nahiko aste lasaia. Aprobetxa dezakezu mediku-azterketa egiteko, eta, horrela, tripetako eta eztarriko arazoak konpondu ahal izateko. Aukera izan dezakezu familiarekin bidaia bat egiteko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Oraingo astean, nahiz eta jende ugari egon zure aldamenean, bakar-bakarrik sentituko zara. Bestalde, lan handia izango duzu, eta horrek galarazi egingo dizu horrenbeste desio zenituen oporrak hartzea. Edozelan ere, ez zaitez behera etorri azken kontu horregatik, lanean lortuko dituzun emaitzek konpentsatu egingo dute-eta.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Norbaitek "negozio interesgarria" proposatuko dizu. Itxura denez, oso gutxi invertituta diru ugari irabaziko duzu negozio horrekin. Baina kontuz! Guztia ez da-eta urre izango , ezta gutxiago ere! Ondo aztertu beharko dituzu egingo dizuten proposamen guztiak, ia guztiak iruzurrak izango dira-eta.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Eguena / 2001eko urriaren 11

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**

## IRATXE EGUEN

### 'Xeleberri' saioko aurkezlea

**Goiena telebistako saiorik xelebreenak duela gutxi hasi du denboraldi berria. Ikasturte honetan ere, Iratxe Eguen elorriarra izango da aurkezle nagusia. Hala ere, guztia ez da berdin *Xeleberri*n. Izan ere, hainbat berrikuntzarekin datorkigu saio.**

**Zer nolako esperientzia da *Xeleberri* bezalako saio batean lan egitea?**

Niretzat oso esperientzia polita da. Hori bai, hasieran pentsatutakoaren aldean oso lan desberdina iruditu zait gaur egun egiten dudana.

**Xeleberri aurkezteko xelebrea izan behar da?**

Ez da zertan xelebrea izan beharrik, edonork aurkeztu dezake horrelako saio bat. Gainera, ez da ezaugarri berezirik behar. Hala ere, nire ustez, kazetariak orokorrean nahiko xelebreak izan ohi dira.

**Zein berrikuntza ditugu aurtengo *Xeleberri* programan?**

Aurten txiste kontalariak ditugu saioan. Horrez gain, inguruko herrietako jaiei protagonismo gehiago emango diegu, hortaz jairik jai ibiliko gara denboraldi berri honetan. Gainontzean, *Xeleberri*k betiko martxan jarraituko du.

**Elorriokoa izanik nolatan Debagoienean lanean?**

Aspalditik Arrasaten ari naiz lanean, eta behin, lehengo zuzendariak San Joan jaien inguruko saio berezi bat aurkeztuko nuen galdetu zidan. Nik berehala baiezkoa eman nion, eta orain horri esker nago *Xeleberri*n.

**"Kazetariak orokorrean nahiko xelebreak izan ohi dira"**



### Iparrorratza

Martitzenean, 22:30ean

#### Oraingoan, Kanadara

Oraingoan ere bidaia erakargarri bat proposatuko dizue Julen Arangurenek. Imanol Garai oñatiarra etorriko da gurera, eta harekin Kanada bisitatzeko aukera izango dugu. Kanadako mendebaleko parke naturalak bizikletaz zeharkatu zituzten Aitorrek eta haren lagunek. Kontuan izan behar dugu 26 mila kilometro koadroko hedadura dutela parkeek Kanadan, hau da, Gipuzkoako hedadura 13 aldiz. Hortaz, badakizu, Kanada bizikleta gainean zeharkatu gura baduzu, martitzenean duzu hitzordua, gaueko hamarretan.

### Goibegirada

Eguaztenean, 22:30ean

#### Euroa

*Goibegirada* saioak izango du aurten ere bere tartea. Mikel Irizar aurkezle ezagunak eztabaidarako gaiak ekarriko ditu hilean behin mahai gainera. Eta hasteko, pil-pilean dagoen gaia: euroa. Hilabete pare bat barru txanpon berriak izango ditugu gure artean, eta duda barik, denen ahotan dabilen gaia dugu. Gai mamitsu honen inguruan lanean diharduten adituak eta kaleko jendea elkartuko ditugu mahaiaren bueltan. Hortaz, datorren eguaztenean, euroa eztabaidagai Goiena Telebistan, gaueko 20:30etik aurrera.

### Sarrera doan

Eguenean, 22:30ean

#### Asteburuari begira

*Sarrera doan*ek aurreko denboraldian hasitako ibilbideari jarraituko dio. Hori dela eta, asteburuko agendari eskainiko dio tarte nagusia. Zinema kontuetan, esaterako, Sex Pistols taldearen gainean egin den zinema-dokumentalaren aurrerapena eskainiko da. Horrez gain, kaleratu berri diren disko eta liburuen berri izango duzue. Azkenik, ikusmiran, Oñatitik Araotzera bitarteko bizikleta ibilbide zoragarriaz gozatzeko aukera izango duzue. Gogora ezazue *Sarrera doan*ek ordutegi berria duela: eguenero, 20:30ean, GOITBn.

goitb Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Urria 12-18

| EGUBAKOITZA 12 | ZAPATUA 13 | DOMEKA 14 | ASTELEHENA 15 | MARTITZENA 16 | EGUAZTENA 17 | EGUENA 18 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 14:00<br>**Asteburuko tartea**<br><br>**Gatza eta berakatza**<br><br>**Iparrorratza**<br>Pakistango Baltoro glaziarra bisitatzeko aukera Erramun Irastortzaren eskutik.<br><br>**Ekilan**<br>Besteak beste, Garaia berrikuntza gunearen inguruan berba egitera etorriko da Andoni Gartzia zuzendaria. Alberto Gorritibereak zuzendutako saioa.<br><br>**Sarrera doan**<br>Ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharreko hitzorduak.<br><br>**Soinuz blai**<br>Azken bideoklipak aurkeztuko dizkizue Ugutz Usandizagak. | 14:00<br>**Asteburuko tartea**<br><br>**Gatza eta berakatza**<br><br>**Iparrorratza**<br>Pakistango Baltoro glaziarra bisitatzeko aukera Erramun Irastortzaren eskutik.<br><br>**Ekilan**<br>Besteak beste, Garaia berrikuntza gunearen inguruan berba egitera etorriko da Andoni Gartzia zuzendaria. Alberto Gorritibereak zuzendutako saioa.<br><br>**Sarrera doan**<br>Ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharreko hitzorduak.<br><br>**Soinuz blai**<br>Azken bideoklipak aurkeztuko dizkizue Ugutz Usandizagak. | 14:00<br>**Asteburuko tartea**<br><br>**Gatza eta berakatza**<br><br>**Iparrorratza**<br>Pakistango Baltoro glaziarra bisitatzeko aukera Erramun Irastortzaren eskutik.<br><br>**Ekilan**<br>Besteak beste, Garaia berrikuntza gunearen inguruan berba egitera etorriko da Andoni Gartzia zuzendaria. Alberto Gorritibereak zuzendutako saioa.<br><br>**Sarrera doan**<br>Ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharreko hitzorduak.<br><br>**Soinuz blai**<br>Azken bideoklipak aurkeztuko dizkizue Ugutz Usandizagak. | 14:00<br>**Berriak**<br>14:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>14:30<br>**Ekilan**<br>15:15<br>**Berriak**<br>15:30<br>**Soinuz blai** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>14:30<br>**Ekilan**<br>15:15<br>**Berriak**<br>15:30<br>**Soinuz blai** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>14:30<br>**Xeleberri**<br>Iratxe Eguen eta bere lantalde bideo xelebreenekin datoz oraingoan ere.<br>15:15<br>**Berriak**<br>15:30<br>**Iparrorratza**<br>Kanadako parke naturalak. | 14:00<br>**Berriak**<br>14:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>14:30<br>**Goibegirada**<br>15:15<br>**Berriak**<br>15:30<br>**Soinuz blai** |
| | | | 20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Goienasport**<br>Asteburuan gure kirol taldeek jokatutako partiden errepaso zabala.<br>21:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>21:30<br>**Berriak** | 20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Xeleberri**<br>Iratxe Eguen eta bere lantaldea bideo xelebreenekin datoz oraingoan ere.<br>21:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>21:30<br>**Berriak**<br>22:00<br>**Iparrorratza**<br>Kanadaraino bidaiatuko dugu saio honetan. Imanol Garai oñatiarra gonbidatu du Julen Arangurenek. Kanada ondo ezagutzen du Aitorrek, hango parke naturalak bizikletan zeharkatu zituen-eta. | 20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Goibegirada**<br>Lehenengo saio honetan, euroaz berba egingo dute luze eta zabal Mikel Irizarrek eta gonbidatuek.<br>21:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>21:30<br>**Berriak** | 20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Sarrera doan**<br>Ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharreko hitzorduak aurkeztuko dizkizue Amagoia Lasagabasterrek. Guk proposamen zabala egingo dizuegu eta zuek zeuok egizue zuen agenda.<br>21:15<br>**Gatza eta berakatza**<br>21:30<br>**Berriak**<br>22:00<br>**Soinuz blai**<br>Ugutz Usandizagak aurkeztutako bideoklipak. |

# Goienkaria

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

| | |
|---|---|
| ARRASATE<br>ARAMAIO |  |
| BERGARA<br>ANTZUOLA<br>ELGETA |  |
| ARETXABALETA<br>ESKORIATZA<br>LEINTZ<br>GATZAGA |  |







Prentsa idatziaren lehen aurrekariak erromatar garaikoak diren arren, prentsa modernoaren hastapenak XVII. mendean koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunkari belgikarra erregulartasunez argitaratzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal Herrian herri prentsaren garapenean. 1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta, harrezkero, beste bost aldizkari ere badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen bateratzea hasi zen eta 2000n, *Goienkaria* jaio zen, eskualdeko aldizkaria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak ediziotan batuko dira. Herri bakoitzak oraingo atal komuna eta bere edizioa jasoko ditu.

## GOIENKARIA EDIZIOEKIN: DEBAGOIENEAN EZER EZ DA BERDIN IZANGO

**URRIAREN 19tik AURRERA, ASTERO GOIENKARIA EDIZIOEKIN**

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** BERGARA 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
Aretxabaleta 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko urriaren 11a

## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Reyes Azkoitia/Pilotaria

**Elosuarra zara?**
Ez, azkoitiarra. Gizona Elosukoa da, eta asteburuetan Elosun asko izaten garenez, jende askok uste du elosuarra naizela. Dena dela, Ugarrixan bizi gara. Jaiotzez, ordea, Azkoitikoa naiz, Martite auzoko Urtiaga baserrikoa.

**Zer eskaini dizu pilotak bizitzan?**
Gauza asko. Ez dut imajinatzen zein bizitza izango ote nuen pilotarik gabe.

**Nola zaletu zinen?**
Txiki-txikitatik. Sei anaiaren artean ni nintzen emakumezko bakarra, eta beharbada hori izan da motiborik indartsuena. Bestalde, auzo txiki batekoa izanik, eskolan frontoia besterik ez genuen. Sasoi hartan bi aukera zeuden: soka-dantza edo pilota. Niri pilota gehiago gustatzen zitzaidan.

**Ez da ohikoa emakume bat pilotan ikustea.**
Ez. Orduan gehiago ere ibiltzen ginen. Gero jarraitzea zen nekeza. 13 urterekin-edo laga egin nion nik ere, baina ezkondu eta hirugarren umea edukitzeko nintzela Elosura joaten hasi ginen asteburuetan, eta frontoia bistan zegoenez, orduan hasi nintzen berriro poliki-poliki. Seme gazteenari ere gustatzen zitzaion, eta hura jokatzen hasi zenean ezagutu ninduen jendeak.

**Nik San Juanetan ezagutu zintudan, Zaldibarren herri bazkariaren ondoren izaten ziren pilota partidetan.**
Hiruzpalau urtez etorri nintzen. Jokatzera joan aurretik sekulako ilusioa izaten nuen. Jokatzeko ordua helduta izugarrizko larritasuna, eta jokatu ondorengo bi egunetan kamioi batek zapalduta bezala egoten nintzen.

**Nori egingo zenioke tanto bat gustura?**
Indarrez dominatu nauen eta atzealdean larri ibilarazi nauen edozeini.

**Orain Bergarako pilotari gazteak entrenatzen aritzen zara. Ba al dago etorkizunik?**
Egoki samar moldatu direnak badaude. Retegi moduko figurarik datorren edo ez esatea zaila da, baina nik uste dut herrian pilota zaletasun handi hori mantentzea ere nahikoa etorkizun dela.

**Zein duzu pilotari gustukoena?**
Ni Retegi zale itsua izan naiz beti. Eugi ere gustatu izan zait. Orain, berriz, Titin eta Goñi. Baina, Goñik pilotan jokatzeaz aparte egiten dituen teatroak ez ditut atsegin.

**Gustatuko litzaizuke Mikel Goñiren entrenatzailea edo botileroa izatea?**
Botilero bezala ez dut inongo ametsik goi mailarako. Afizionatuetan dabiltzan bitartean gaztetxoek nire aholkuak entzun nahi badituzte, pozik arituko naiz. Hortik gora ez dut inongo anbiziorik.



**"Ez dut imajinatzen zein bizitza izango ote nuen pilotarik gabe"**

**"Ezkondu eta hirugarren umea edukitzeko nintzela hasi nintzen berriro pilotan, poliki-poliki"**

**"Botilero bezala ez dut inongo ametsik goi mailarako"**

▶ *Bergararra / 49 urte / Pilotaria*

## AIPAGARRI



**MARKEL IRIZAR**
**Oñati**

Lisboan jokatzen ari den Munduko Txirrindulari Txapelketan aritu zen martitzenean. Erloju kontrakoa jokatu zuen eta 21. sailkatu zen. Markelek errepideko proban jardungo du bihar, egubakoitza.

**LUIS ANGEL SANADO**
**Iruñea**

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko Traumatologia Zerbitzuko zuzendari izendatu berri dute 43 urteko iruindarra. Nafarroako Unibertsitatean Medikuntza lizentziatura eta doktoretza egin zituen, eta lehenago Lizarrako Ospitalean, Nafarroako Ospitalean (Iruñea) eta Gasteizko Santiago Ospitalean jardun du.

**XABIER AGIRRE**
**Bergara**

*Bosteko 01* erakusketa ibiltarian parte hartzen diharduten bost artistetako bat da pintore bergararra. Erakusketa Bizkaiko bost herritan izango da ikusgai. Urri amaiera arte Mungiako Torrebillela kultura etxean. Agirreeren margolan bi ikus daitezke. Arte garaikidea publikoarengana hurbiltzea da erakusketan parte hartzen duten hiru pintoreen eta bi eskultoreen helburua.

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa,1· OÑATI
Tel.: 943 71 63 22




- Era guztietako azulejoak.
- Bainu altzariak eta osagarriak.
- Kabinak eta hidromasaje bainerak.



